

uk

233. zenbakia / 2013ko maiatzaren 27a



Beti dago lehen aldi bat edozertarako...

Honetarako, hartarako... badakizu. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai; erosketa supermerkatua joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

10€

oparituko dizkizugu online egindako lehendabiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik gorako eskaerentarako balio du.

eroski.es



www.renault.es / 902 333 500

RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA






CROSSOVERRA ESPAINIAN EGINA

Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4raino. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

Renault presentatzen du 

DRIVE THE CHANGE



BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU . www.billoberri.com

LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA . www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
 ERREDAKZIOA: Zuberua Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAIKAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia, Armando Llamasos, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

ERAKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA: Hizkuntza erabilera eta hizkuntza politikaren saila

DEPARTAMENTO DE EDUCACION, POLITICA LINGÜISTICA Y CULTURA: Viceconsejería de Política Lingüística

Bizkaiko Foru Aklundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Kultura Saila
 Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. "Plazara!" ekimena Algortan.
6. FACEGUK. Zer eskaini beharko lukete zure herriko jaiek?
7. LEHEN ETA ORAIN. Zugazarte etorbidea (Areeta), 1925?.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Koldo Larrinaga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ARGAZKIA. Sopelan, 1933.
28. BERBETAN. Jokin de Pedro.
32. FOTOGRAFIA. ArgiHizkiak 2012.
40. SAKONEAN. Fracking-a Uribe Kostan.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Hendaia Film Festival-a.
43. MUSIKA. Leioako Pop-Rock lehiaketako finalistak.
44. LIBURUAK. Literatura ekimena.
45. KIROLAK. Kosta Trail.
46. ELKARRIZKETA. Joana Etxano, Emakumeen Eskubideen Auzitegia.
47. JENTILKOBA. Jentilak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Boletus eta bakailaoa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. San Nikolas ikastolakoak, 1965-66.
54. AITORMENAK. Miriam Cabeza.

Azala: Mikel Martinez de Osaba (ArgiHizkiak 2012)

www.ukaldizkaria.biz



30 Jokin de Pedro

Berbetan

Aixerrotako euskara irakasle eta idazleagaz berba egin dugu *Etsai Gordea* bere azkeneko liburuz



11 Koldo Larrinaga



46 Joana Etxano

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail.....

Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro

beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digitu)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Leihatila

> Arrate Illaro

Gutxi asko

“Gutxi asko egitera behartu gaitu egoerak, seguru aski lehen askorekin gutxi egindako boladak izan direlako”. Horixe idatzi zuen Andoni Egañak duela aste pare bat Berrian. Egia esan, nik urruti xamar ikusten ditut baliabide asko genitueneko garaiak. Gaztetxoegia nintzen, zorionez edo zoritxarrez. Baina esango nuke euskalgintzan aspaldi egiten dela lan apurrekin.

Diru gutxi asko gauza asko egin dira gure herrian. Gurasoek ikastolak jarri zituzten martxan, gaurko umeak euskara elkarteko udalekuetara joaten dira, albisteak euskaraz irakurtzen ditugu eta kultur-eskaintza zabala daukagu, besteak beste.

Baina jende gutxi asko egin dira gure herrian. Borondatezko lanari esker egin dugu aurrera euskalgintzan, kaletar xumeen borondate onarekin egindako lanari esker. Eutsi nahian ari gara, gainontzeko alorretan bezala, baina gurean, gutxi asko egin behar izatea izan liteke arazoa. Beste krisi mota bati buruz ariko ginateke orduan.

gu geu**Afrontua eta euria...**

Galerna edo enbata izango zela pentsatu genuen... Erauntsi forma hartzen zihonan... eta azkenean trumoi-hotsak Sopela afontuan zegoela esan zigun. Guardasola eskuan eta botinak jantzita, sopoloztarren Udalean zer gertatzen dabilen jakin guran hurreratu gara...

Halaber, orain gitxi kostaldeko lur-azpitik gasa ateratzeko asmotan dabilizala jakinarazi diete sopoloztarrei, baita uribekostar guztiei ere... Ihurtzuriak zerumugan... Eta horren barri ere jaso gura izan dugu...

Euriaren alde biak... hain beharrezko eta hain kantsagarri... Apurtxo baterako aterpea bilatuko bagenu... Eta maiatz honek egia esateko eskaini dizkigu batzuk, sinesten ahalegindu gara, geure buruak engainatzeraino... Gogoia da duguna, ez dago besterik! Oraindino Eguzki amandrea han goian erregin izateko eta hari begira gu pozez berotzen hasteko itxaron behar dugu... Ekainari gogoz eta irribarrez egingo diogu ongietorria Eguzki amandrea gurera gonbida dezan; eta, sasoi luzerako badator, gu pozarren, gurean bada lekua-eta!!

UK-ko lan-taldea**Iritzia**

UKabilkada musika taldeko abeslariak euren garaiaz, herriko musika taldeen egoeraz, alboan izandakoez eta daudenez, atzo-gaurko oztopoz e.a. dihardu:

Kaleko musikaren udaberria

10 urte; denbora asko batzuentzat baina epe laburra herri baten historian. Herri baten izaera, gertaera txikiak sortzen dute; eta azken hamarkadan musika mugimenduan ereindako haziak, nortasun berria eman diote herriari.

«Harrotasunez esan ahal dugu: harrobi itzela dugu gure herria»

Kantaria izan da betidanik gure herria, musika-zalea; baina asko ginen gure izaera garaiko taldeetan islatuta ikusten ez genuenak. Musika estilo asko jorratzen ziren, baina estilo horiek ez gintuzten asetzen. Oi!, rock & oi, punkrock-a... Gustuko genuen; kaleko musika azken finean.

Hutsune hori betetzeko asmoz kaleko musika egiten zuten taldeak sortzen hasi ziren gure herrian; teknikoki eskasak baina zirikatze eta ondo pasatzeko gogo handiarekin. Lau katu batzen ginen kontzertuetara, baina gaztetxe eta jai-batzorde herrikoien babesari esker, belaunaldi berri bat loratzen hasi zen.

Ez da erraza izan eta oztopo asko izan ditugu bidean; baina herri bezala ekinez, oztopo horien guztien gainetik salto egin dugu.

2013. urtean gaude eta erreleboa gauzatu da, zorionez. Algortako "kaleko musika" mugimendua heldutasunera heldu da eta Euskal Herriko bazter guztietan ezagutzen dute gure herriaren izena eta izana. Harrotasunez esan ahal dugu, harrobi itzela daukagu gure herrian.

Hasieran mugimendua babestu zutenek, babesa emoten jarraitzen dute eta berri batzuk ere batu dira. Bestalde, urrun egon zirenak oraindik ere urrun daude. Badakigu, herriko taldeek entsaiatzeko tokirik ez duten bitartean, herriak behar ez duen antzoki erraldoiaren aldeko apustua egin dutela. Folk, Jazz...eta antzeko festibaletan utziko dute dirua eta esfortzua; eta herriko taldeek jotzeko leku barik jarraituko dute.

Horregatik eskertzekoa da momentu latz hauetan, herriko musikaren alde musutruk lan egiten duten taberna, pertsona eta kolektiboen ahalegina.

Nahiz eta trabak gero eta handiagoak izan; nahiz eta etorkizuna ilun ikusi, talde berriak loratuz doaz gurean.

Talde hauek daude orain oholta gainean, eta gu; eurak lehen egon ziren bezala, lehenengo lerroan gaude harrotasunez.

Erasoka, Fuel Oi, UK, Undeate Army, Garrasika, Ukabilkada, Batalloi, Eztanda, Kaset, Break Out, H2Oi, Neguri Albokoak, Narkolepsia, Kaleko orroak, Lehertu arte, Maidagan, Bird Trouble, Txorimalo, Etsi gabe, NPI, MadSkins, 4anai...

EZ GARA INOIZ HILKO!!**Mikel "Piña"**

(UKabilkada musika taldeko abeslaria)

[irudia]



ALGORTAN, 2018KO MAIATZAREN 18AN

“Plazak bete...!” ...kartzelak busteko”, asmo horregaz egin zuten giza-katea Algortan maiatzaren 18an. Herrira mugimenduen Plazara! ekimenaren baitan burutu zuten, “euskal preso eta iheslari politikoekin herritazeez aldarrikatzeko asmoz”. Egun hartan herriz herri egin zituzten antzeko ekimenak eta mobilizazioak, Algortan bezala Uribe Kosta eta Euskal Herri osoan. Zehazki, eskatu zuten “euskal presoak Euskal Herritazeko, gaixotasun larriak dituzten presoak libre uzteko, bizi osorako espetxe zigorra dakarten neurriak indargabetezko eta pertsona bezala dagozkien giza-eskubide guztiak errespetatzeko”. ○ / Argazkia: Hodei Torres

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugu!

Zer eskaini beharko lukete zure herriko jaiek? Zer behar dute?



Algorta

Leire Idarraga Espel

> **Berdintasun-teknikaria eta langabea**

Benetan jai parekideak izatea nahi nuke, ez bakarrik diskurtso aldetik: erasorik gabeak, emakumeek seguru ibili ahal izatea jaietan eta etxerako bidean, eta bestelako elementuak ere zaintzea; hala-nola, musika, mezuak, ekintzak eta abar parekideak izatea. Badakit Bilgune Feminista saiatzen ari dena.



Errigoiti

Oihane Oar Uribarri

> **Aholkularia**

Antolatzaileek herritarrek aintzat hartzea nahi nuke, bai egitaraua osatzeko orduan, bai parte hartzeko garaian. Hala da, herritarrekin batera egitea jaiak, eurak aintzat hartuz. Azken batean, jaiak herritarrentzat pentsatzea, eta ez kanpokoentzat.



Berango

Amaia Barrena Zezeaga

> **Irakaslea**

Normalean jaietara buruz pentsatzean gazteak ditugu gogoan eta ekintza gehienak gaueko hamaiketatik aurrera izaten dira, kontzertuak edota txosna inguruan egiten direnak. Uste dut faltan daudela ekintzak egunean zehar. Antzerkiak egoten dira, baina umeei parte hartzeko bestelakoak ere egin litezke.



Bilbo

Sara Alvarez Garcia

> **Immigrazio-teknikaria**

Etorikinek parte hartzea nahi nuke. Ez dute bozkatzeko eskubiderik eta ez dute parte hartzen gure gizartean: euren egiten diren ekintzak normalean folklorikoak izaten dira eta ez dute loturarik egunerokotasunarekin. Beraz, interesgarria litzateke jaietan parte hartzea, integratzeko modu gisa.



Areeta

Sandra Arroyo Cruz

> **Gizarte-hezitzailea**

Garrantzitsua da parte-hartzea, ekonomia parte-hartzailearen bidez: jendeak erabakitzea zer egin nahi duen, eta erabaki dezan dirua non eta zelan inbertitu jaietan; aurrekontuak parte-hartzaileak izatea eta diru hori ondo banatuta egotea, ekimenak antolatuz adin guztietako pertsonentzat.



Astrabudua

Pili Manzidor Perez

> **Administraria**

Jaiak, agian, gazteentzako antolatuta daude eta gauza bat ez dut oso gustuko: gauean dagoen zarata, lagunekin ezin da-eta lasai hitz egin. Bestalde, alkohol gutxiago nahi nuke, baina beno, orain gutxi Romon bazkaria egin dute gazteek eta hori ondo derizot.



[lehen]

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK UTZITAKO ARGAZIA



[orain]

HOEETOPRIES

Iraganez doa denbora* beti / ZUGATZARTE ETORBIDEA, 1925(?)

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Txoposeko goiko barandatik



Algorta, 2013ko maiatza

Testua: **Galder Bilbao "Txapi"**
Argazkia: **Ane Basagoiti**

1

Bertso-sorta bat idatzi behar hortarako bi artista; bertsolari ta argazkilari baina bakarra da bista. Herri erdian itsasorantza so dagoen leihoa da pista, lekua oso ezaguna da ezin gaitzke despista, baina oinak ez, zeren oraindik ez gara hain fetitxista.

2

Aspaldi geunden antizikloia eta eguzkiaren zai(n), maitalea alboan tragua bestean bihurtuz edozein egun jai. Ortozik eta postura hartuta oinak eguzkitan alai, egun guztian egon gintezke nagi ta alferretan ai! Edozer esan daiteke, baina nork ez du horrela egon nahi!

3

Olgetan eta patxadaz egon gustuko goxokia dugu, baina barrera ta muga asko erdian daude seguru. Erromantiko ta bihotz oneko gizartea daukagu helburu; poltrona sobre kartzel krisia aurrean hamaika apuru; jaiki ta zutik jartzeko arrazoi handi ta ugari ditugu!

* Doinua: Lide txikia hodei handia

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal egiguzu atal honetan agertzea
gura zenukeen argazkia
eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz



Bizkaiko Arkeologia Museora eroan dituzte

zaharbarritzen > Galea kanoi barik

Galeako gotorlekuko hiru kanoiak Bizkaiko Arkeologia Museora (Bilbo) eroan dituzte zaharbarritzeko, eta "jendaurrean erakusteko" Getxoko Udalak adierazi duenez. Lanok Getxoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiagaz egindako akordioaren ondorioz egingo dira; eta kanoiak museoan aldi baterako uzteko-erakusteko baldintzak, "Aldundiak eta Udalak gerora sinatuko duten hitzarmenean zehaztuko di-

ra". Udaletik azaldu legez, gotorlekuan 14 kanoi-zulo daude, barrituko duten kanoi bakoitzak 2 tona inguru pisatzen du, baina jatorriaz ezer gitxi ezagutzen da: "Aran-zadiren ikerketaren arabera, kanoiak lekuz kanpo zeudenez, ezin zehaztu egungo gotorlekuarenak ziren hasieratik, ala bertara eramantzen zituzten ostalaritza-establezimendua atondu zutenean". Inguruan beste hainbat berreskuratzeko, garbitze-lan egingo dute. ○

antzerkia > Jon Urraza saria lortzeko atarian

Jon Urraza aktore algortarra Espainiako XVI. Max Antzerki Sarietako Euskarazko Autoretza Onenari ataleko hautagaien eta finalistaren artean egon da aurten, *Morrison eta Gartzia: Kultoko Antezzlana* lanagatik. Akabuan, *Lingua Nabajorum* antzerkiagatik Patxo Telleria (Tartean antzerki egitamu eta proposamena taldearen izenean) saritu badute ere, ez da ez ahuntzaren gauerdiko ez tula algortarra horrai-

no heldu izana! Gainera, ez da Urrazarentzat lehenengo aldia, hau da: Autore Fundazioaren eta Autore eta Editoreen Elkartearen (SGAEren) ekimenez antolatzen diren Max Sarietarako orain dela urte bi ere izendatu zuten edo hautagai izan zen algortarra, orduan *Bestela ondo, ezta?* sorkuntzagatik. Hirugarrenean zoria alde izan dezala, eta antzerkian esaten duten legez: hurrengorako *kaka!* ○



Urraza Max Sarietan hautagai izan da

Info+: www.ibarezkerra.net

euskaraz > software libre tresnak DVD batean

Bilboko Ibar Ezkerra lanbide ikastolako irakasle Joseba Mirena Bilbao Reque-nak jakinarazi digunez, euskarazko software libre tresnak DVD batean batu dituzte, "bertan, aplikazioen inguruko informazioa, instalatzeko botoiak, azalpenak e.a. agertzen dira". Horregaz, euren helburua hurrengoa da: "euskarazko software libreko tresnak ikastoletako zein ikastetxeetako ikasleen artean ezagutaraztea eta erabil-

ditzen animatzea; helburu hori lortzearen, Bizkaiko ikastola zein ikastetxeetan, honako jarduerak haur proposatzen gabiltza: DBH 4. mailako zein batxilergoko 1. mailako ikasleei "Software librea euskaraz 2.0" inguruko hitzaldia eskaintzea (ordu bateko saioa)". Besteak beste, partaideek DVD bana jasoko lukete, "jardunaldia eta DVDa doan izango lirateke, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz-lagunduta baitago". ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143



Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta, ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan. ArgiHizkiak testu laburren euskarazko literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura. Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

ARGIHIZKIAK

Argazkietan oinarritutako TESTU LABURREN II. LEHIAKETA

LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

16 urtetik gorako edonork parte har dezake.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak: argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:

Labur-laburra: 160 karaktere gehienez.

Laburra: 100 hitz gehienez.

ARGAZKIAK IKUSTEKO ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK

www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak/

info+: argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

EPEA

Maiatzaren 1etik maiatzaren 31ra bitartean (biak barne).



LUZE

[erretratu]



"Ez zitzaidan burutik ere pasatzen inoiz munduko pala-txapeldun izango nintzenik"

Koldo Larrinaga Sangroniz > Munduko pala-txapelduna

Aurpegian irribarre handi-handia marraztuta. Horrela topatu dugu Koldo Larrinaga pilotaria Sopolako udal-pilotalekuan. Izan ere, sopoloztarrak Munduko Pala Txapelketa irabazi barri du bigarren aldiz, Pablo Fusto argentinarragaz batera. Marka itzela, beraz: "Ez nuen imajinatzen, ez zitzaidan burutik ere pasatzen inoiz munduko txapeldun izango nintzenik. Profesionaletan hasi nintzanean final batera iristea edo txapel bat lortzea ametsa zen". Urte asko daroa Larrinagak frontoiko horma artean: "12 bat urtegaz hasi nintzen, hasiera batean aitagaz eskupilotan, eta gero pala-eskoletara apuntatu nintzen Getxon". Sopoloztarra den arren, beti ibili da Getxoko taldean, eta talde getxoztarraren oroitzapen oso onak gorde ditu: "Jokin Alonsori, Getxoko taldeko arduradunari, eskerrak eman gura dizkiot, beragatik izango ez balitz ez nintzateke profesionaletan ibiliko". Larrinagak hamar urte daroa profesionaletan, eta hamaika txapel eskuratu ditu jada. Ibilbide oparo honi gorazarre egiteko, omenaldia antolatu zion Sopolako Udalak maiatzaren 17an: "Hunkigarria da niretzat horrelako ekitaldi bat antolatzea nire herrian". Horrelako ekimenek, bere ustez, pala sustatzeko balio dute, oraindik orain eskupilotagaz alderatuta ez baitu oihartzun handirik: "Gero eta jende gutxiago ari da palan". Larrinagak, baina, jarraitzeko asmoa du, hirugarren txapelaren bila: "Ea egia den!".

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Hodei Torres**

Aixe Getxo! sariak, hirugarrenez

Hainbat arlotan erakutsitako konpromisoa eta Getxoren izena munduan zabaltzeagatik saritu ditu Udalak herriko 13 pertsona, enpresa eta eragile, beste hainbeste kategoriatan

Aixe Getxo! sarien hirugarren ekitaldian Getxoko 13 kultur ekimen eta eragile nabarmendu ditu Udalak, beste behin ere, "kultura munduaren hainbat arlotan adierazitako konpromisoagatik eta udalerraren izena munduan zabaltzeagatik". Maiatzaren 16an banatu zituzten sariak, Fadura kiroldegiko areto nagusian.

Getxon "egiten den jardueraren kulturala, zentzu zabalean", aitortu gura dute Aixe Getxo! sariak eta Koldo Iturbe Kultur zinegotziak gogoratu bezala, "ospakizun giroan egin gura da: gizarte zibil getxoztarrari berari esker ona agertu eta omenaldia egin gura zaio, eta jarraipena emoten zaie alde zuzenetik kirol, boluntariora edo euskararen arloetan egindako ekimenei".

"Kultura munduaren hainbat arlotan, udalerrian sortutako zenbait eragile eta ekimenek egindako lana, beren konpromisoa eta zabalkunde ahalegina azpimarratzeko asmoagaz" sortutako sariak esleitzeko, hain zuzen ere, epaimahaia osatu dute kulturagaz lotutako sei getxoztarrek eta, edizio honetan, ondorengo lagun, elkarte eta enpresak saritzea erabaki dute:

Kiko de la Rica zine-argazkigintza zuzendaria, eta barriki Espainiako Goya saria irabazitakoa (Ikus-entzunezko Artearen arloan); Ana Schmidt arkitekto eta margolaria (Arte plastikoak); Eguzki Zubia aktorea (Arte Eszenikoak); Victoria Aja pianista, oraintsu Txinan dagoena *L'Esprit du Piano* jaialdian jotzeko



Sari-banaketa ekitaldia

(Musika Klasikoa eta Garaikidea); Daniel Merino konpositore eta abeslaria (Gaur egungo Musika); Ibon Zubiaur filosofoa (Literatura); Ian Mosh enpresa, Olatz Iruarrizaga diseinatzaileak zuzendua (Diseinua); Algortako San Nikolas

"Gizarte zibil getxoztarrari esker ona agertu eta omenaldia egin gura zaio Aixe Getxo! sariakaz"

eliza, neoklasiko berantiarren eredua dena eta 150 urte daukana (Arkitektura eta Eremu Publikoa); Itxas Argia elkarte, 1956. urtetik Nazioarteko Paella Lehiaketa antolatzailea (Gastronomia); eta Unai Aranzadi kazetaria, munduko hainbat gerra eta "utopiatan" egindako lanagatik (Kultura eta Baloreak).

Sener ingeniari enpresa ere bai (Berrikuntza Kultura); Biotz Alai abesbatza, aurten 90 urte betetzen dituena (Kultura Ondarea: hautemangarria eta hautemangaitza); eta Rafa Villa margolari, marrazkilaria eta eszenografoa, besteak beste, Getxoko Eskola Antzerki Jardunaldien antolaketan parte hartzen duena (Ibilbide Profesional eta Artistikoa).

Udaleko Kultur arlotik gogorazti dutenez, Aixe Getxo! sarion helburua da Getxoko Kulturaren munduarentzat urteko topagune bihurtzea eta, era horretan, arloan lan egiten duten eragile, erakunde edo pertsonen arteko harremanak erraztea. Sariak banatzeko ekitaldia maiatzaren 16an egin zuten, Fadura kiroldegiko areto nagusian. ○

Info+: www.getxo.net

Udan gozatu kirolagaz!

Emakumeek ere futbola praktikatu ahalko dute



Ekainetik irailera badago zer aukeratu kirol campusen artean

Uda honetan ere hamabi kirol-campus eskainiko ditu Getxoko hainbat kirol taldek, Getxo Kirolak elkartearen laguntzagaz. Taldeak adinaren arabera antolatuko dituzte eta, kirolaren arabera, parte hartu ahal izateko adin tartea aldatuko da; hain zuzen, 4 eta 15 urte bitarteko ume eta gazteentzat zuzenduta daude campusak eta daborduko izena emon daiteke.

Zehazki, ondoko kirolak praktikatu ahalko dituzte gazteek: gimnasia erritmikoa, errugbia, saskibaloia, kirol anitza, igeriketa, tenisa, bela eta futbola. Aurtengo barritasuna da Bizkerre Futbol Taldeak emakumeentzako campusa eskainiko duela ekainaren 24tik 28ra, taldearen egoitzan. Campus gehienak egingo dira data horietan Fadura eta Gobela kiroldegietan. Bela eskola, barriz, ekainaren

1etik irailaren 15era egongo da zabalik. Gainera, saskibaloia, errugbia eta kirol anitza uztailaren erdian eskainiko dituzte, eta azken biak abuztuan ere. Prezioa kirolaren eta campusaren iraupenaren arabera da, eta informazio osoa topa daiteke Udalaren webgunean: www.getxo.net.

Bestalde, Fadurako Txikiguneak 3 eta 12 urte arteko umeentzako programa berezia antolatu du uda honetarako: orduztia da 08:00etatik 14:00etara, baina aukera dago denbora gitxiago egoteko, 10:00etatik 14:00etara. Ordu bi bakarrik daudenek astean 55 euro ordainduko dute eta goiz osoa daudenek 85 euro. Gainera, otordu zerbitzua ere eskainiko du Txikiguneak, Fadura jatetxearen laguntzagaz. Informazio gehiago: 94 479 22 55 edo txikigune@gmail.com. ○

GORPUZTI JAIA PORTUAN EKAINAREN 1 ETA 2AN

Algortako Portu Zaharrean Gorpuzti jaia ospatuko dute ekain hasieran. Hilaren 1etik aurrera, *Harri garbiketa*, eta *Mexota eta bere arrantza-tresna* erakusketa ikusi ahalko da, baina ekitaldi nagusiak domekan izango dira; besteak beste: itsasontzi-uretaratzea eta erakustaldia, meza, Mexota txaluparen jaitsiera, bertsolariak, sardina-jana, Biotz Alai abesbatza eta Los cinco bilbainos taldearen kontzertua. Gozatu!

MUSIKA ESKOLARA DATORREN IKASTURTEAN

Ikasle barriek maiatzaren 31ra arte emon dezakete izena Andres Isasi musika eskolan, 2013-14 ikasturterako. Matrikula egiteko beharrezko informazioa eskura daiteke Udalaren webgunean edo eskolara deituz: www.getxo.net/eu/musika-eskola/estudios-y-departamentos/matricula-musika-eskola eta 944646011.

'OPORRAK BAKEAN' SAHARAR UMEAKAZ

Getxoko ATFAL Sahararen Aldeko Elkarteak 2013ko Oporrak Bakean ekimena abiatu du eta familia bila dabil udan saharar umeak etxean hartzeko. Ekimenaren asmoa lotuta dago "osasunari, aisialdiari eta kontzientziarioari". Harremanetarako: 658751359, 944660017, atfalgetxo@gmail.com eta lankidetza@getxo.net.

GETXOARTEN PARTE HARTZEKO IZENA EMON

Getxoarte ekimenaren 2013ko edizioan parte hartu gura baduzu hilaren 31ra arte emon dezakezu izena. Oraingoan, Getxo AktibaTU! kanpainaren barnean kokatu dute Getxoarte eta, haren bitartez, "bertoko denda-kaleak dinamizatu" gura dituzte. Horrela, artistek (70 guztira) ekimen horretarako lekua utzi duten denda eta tabernetan erakutsiko dituzte lanak.

Info+: www.getxo.net/getxoarte



Udaberri promozioa:
Alkandorak eta brusak 19'95€

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Peio Atxalandabaso eta Marina Goñi > Serifalaris topaketa

“Asmoa da diseinatzaile grafikoak elkartzeari, sektorea oso sakabanatuta dago-eta”



Maiatzaren 31n izango da topaketa, Andres Isasi musika-eskolan

Diseinatzaile grafikoaren hirugarren topaketa izango da Getxon maiatzaren 31n, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Antolaketa lanetan dabilta Marina Goñi (Marina Goñi estudiokoa) eta Peio Atxalandabaso (Freskue estudiokoa). Goizean hitzaldiak izango dira eta arrastian tailerrak. Gainera, erakusketa prestatu dute topaketaren harira, eta ekainaren 7ra arte ikus daiteke Areetako Elkartegian. Topaketan parte hartzeko sarrera erosi behar da: hitzaldietarako 15 eurokoa da eta tailerretan ere parte hartu gura izanez gero, 45 eurokoa.

—Hirugarrenez elkartuko zarete aurten diseinatzaileak, nongoak izaten dira?

—Batez ere Euskadikoak dira, baina maila handiko hizlariak ekarri ohi ditugu eta inguruko herrialdeetatik ere hurbiltzen da jendea: Asturias, Errioxa, e.a. Jendea animatzen da bertara, inguru honetan ez dagoelako antzeko beste ezer, eta bestela Madrilera edo Bartzelonara joan behar dutelako. Gainera, ohiko zirkuitu horretatik at dagoenez, Getxora asteburu bat hurbiltzeko aitzakia polita ere bada.

—Asmoa zein da, diseinatzaileak elkar-

tzea, elkar ezagutzeari eta ikastea?

—Hori da ideia, elkargunea izatea, sektorea hemen oso sakabanatuta dagoelako. Benetako helburua hori da, baina forma toa hitzaldiek eta tailerrek osatzen dute. Hitzaldiak emongo dituzte diseinatzaile nahiko ezagunek; aurten, besteak beste, Sari Nazionala jaso duen diseinatzaile bat dator. Eta arrastian, tailerrak. Beraz, topaketa guztiz hezitzailea da, baina elkartzeko izaera emoten saiatzen gara: kontua ez da bakarrik izen handiko kanpotarrak etortzea, baizik eta diseinatzaileok ere elkar eza-

gutzea. Horretarako, uneak eskaintzen saiatzen gara: goizeko kaferako denbora tarte nahikoa utziz gure artean lasai hitz egiteko, gauean jai txiki bat eginez... Inspiratzeko egun bat da azkenean: jendea egunerokotasunean sartuta egon ohi da eta, egun ho-

«Goizean hitzaldiak izango dira eta arrastian tailerrak»

rretan, kobazulotik atera eta argia ikusten du nolabait esateko. Hau da, zure antzeko zaletasuna daukan jendea ezagutzen duzu, iritziak trukatzeko dituzu... Tailerretan hori dena praktikara eramateko aukera daukazu: goizean indarrak hartu eta arrastian hustu. —Zer gai aukeratu dituzue?

—Hasieratik jorratu dugu tipografia, topaketaren izena ere horregaz lotuta dago. Gai horri buruz gutxienez hitzaldi bat eskaintzen saiatzen gara; bestela diseinu grafiko orokorrean, baita animazio ere. Aurten animazio grafikoari buruzko hitzaldi eta tailer bana daukagu. Beti dira diseinu grafikoaren oso gai hurbilak. Halere, bestelako alorretako jendeak ere parte hartzen du, adibidez arkitektoek, argazkilariek edota ilustratzaileek. Euren lana erakusten dute eta asko ikasten dugu.

—Eta gainera, erakusketa bat ere prestatu duzue aurten?

—Bai, Areetako Elkartegian ikusgai dago ekainaren 7ra arte, eta 17 diseinatzaile, ikasle eta estudiantetako lanak biltzen ditu. Bakoitzak kartel bat egin du guk proposatutako gaiari oinarrituz. Asmoa da hemen egiten dugun lana ikusaraztea eta aintzat hartzea. Lanbidea bera balioztatzeko modu bat da. Ikusle ororentzat pentsatuta dago eta oso atsegina da. Diseinatzaile bakoitzak bere ikuspegia emon dio gaiari. ○

Info+: www.serifalaris.com

Eskolarteko jokoak

Getxoko 1.500 ikasle parte hartzen ari dira; sari-banaketa ekainaren 14an da



Lehen Hezkuntzako 2, 4 eta 6. mailako ikasleek parte hartu dute Jokoetan

Eskolarteko Jokoen laugarren edizioa egiten ari da asteon Getxon: maiatzaren 17, 24 eta 31n dira saioak, Fadura kiroldegian. Ekimen horren helburua da “kirol praktika ez lehiakorra sustatzea”, hain zuzen ere, Getxoko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2, 4 eta 6. mailako umeen artean.

Atletismoa, kirol egokitua, herri-kirolak eta futboleko probek osatzen dituzte jokoak eta 1.500 ikasle parte hartzen ari dira. Azaldu dutenez, futboleia kirol modalitate barria da, futbola eta boleibolaren arteko talde-jokoa.

Topaketaren filosofiari jarraituz, ez da

saillapenik ezta kanporaketa probarik ere egongo, izan ere, asmoa da “eskola komunitatea hainbat kirolerara hurbiltzea, eta horien praktika giro ludiko eta partehartzailer batean sustatzea”.

Daborduko parte hartu dute 4. eta 6. mailako ikasleek eta 2. mailakoak maiatzaren 31n hurbilduko dira Fadura kiroldegira. Baina Jokoak ez dira horrela amaituko, izan ere, ekitaldi berezia antolatuko dute ekainaren 14rako, sari-banaketarekin egiteko. Algortako Biotz Alai plazan izango da, Getxo Kirolak Street Kulture Jaialdiagaz batera. ○

Info+: www.getxo.net

ANTZINAKO AKITANIARI BURUZKO HITZALDIA

Bolibartiar Ikaskuntza Elkartek antzinako Akitaniari buruzko hitzaldia antolatuko du ekainaren 6rako, eguenerako, urteko ikastaro zikloaren baitan. Halip Lartiga historialari eta irakasleak hitz egingo du “antzinako Akitania/ Novempopulania” gaiari buruz, Algortako kultur etxean. Hitzaldia 19:00etan hasiko da.

Info+: www.bolibar.org

ROMOKO AUZOKIDEEN ELKARTEAREN EKITALDIA

Ekainaren 1ean aurkeztuko dute Romoko Auzokideen Elkartea, Santa Eugenia plazan. Goizerako prestatu dute jaitzoa: 11:00etatik aurrera umeentzako jarduerak egongo dira eta 13:30ean ekitaldia; plaza inauguratu eta elkartea aurkeztuko dute, eta parrilada bat ere egingo dute. Gainera, auzoko argazkiak bildu gura dituzte: 10:00etatik aurrera eroan ditzakezu gordeta daukazun irudi horiek (gero bueltatuko dizkizute).

XXXI. ESKOLA ANTZERKI JARDUNALDIK AREETAN

Ikasturtean zehar udalerriko eskola, DBHko zentro eta ikastola publikoetan GUABE elkartearen antzerki tailerrak garatu dira eta ekainaren 2an ikusleentzako erakutsiko dute egindako lanaren emaitza. Areetako Andres Isasi musika eskolan izango dira XXXI. Eskola Antzerki Jardunaldiak eta saio bi egingo dituzte: 11:30etik 14:00etara bata, 17:00etatik 19:30era bestea.

PLAZAOLA BIDERA TXANGOIA SENDI-GAZ

Lekunberrira asteburuko txangoia prestatu dute Sendi egitasmoko lagunek, ekainaren 8rako eta 9rako. Plazaolako bide berdea bizikletaz egiteko aukera paregabea izango da eta gaua Lekunberriko kanpenean igaroko dute. Izena emateko Egizu elkarteagaz harremanetan ipini behar duzu, 619 935 541 telefonora deituz. Animatu eta kendu hautsa bizikleta zaharrari!

Info+: www.egizu.org

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Jon Gago > Striknina musika-taldeko kidea

“Saria benetako sorpresa izan da eta oso pozik gaude; gainera, diskoa duela gitxi kaleratu dugu”

Leioako XIII. Pop Rock Lehiaketaren finala sanjuanetan izango da, baina daborduko plazaratu dute herriko talde onenaren saria: Striknina irabazi du. Duela zazpi urte sortu zen eta taldekideak dira Jon Gago, Unax Vazquez eta Mikel Bilbao.

—Lehen diskoa kaleratu eta Leioako saria irabazi duzue, aurten topera, ezta?
—Bai, asmoa zen diskoa urtarrean argitaratzea, baina azkenean, martxoan iritsi zen, abendu akabuan amaitu genuelako grabatzen; *Rosebud* dauka izena. Eta saria benetako sorpresa izan da. Normalean talde askok parte hartzen du lehiaketa honetan, baina ez genekien zenbat izaten diren Leioakoak. Ezagutzen ditugu talde batzuk bertakoak, adibidez Baketazo eta Skimales, baina ez genekien zerbaite atarzekotan zebiltzan. Azkenean irabazi dugu eta oso pozik gaude.
—Izen bitxia Striknina, nondik dator eta zer esan gura du?
—Lagunartean sortu genuen taldea, ondo pasatzen genuen. Egun batetik bestera kontzertu bat lortu genuen eta, beraz, izen bat behar genuen. Garai hartan, nire ama Agatha Christie-ren liburu bat irakurtzen ari zen eta berak proposatu zidan



Info+: www.striknina.com

izena; izan ere, liburu hartan hiltzaileak striknina erabiltzen zuen jendea hiltzeko. Hitza gustatu zitzaigun eta taldearen izen bezala aukeratu genuen.
—Eta azalduko zenuke zer musika mota egiten duzuen, zer estilo jotzen duzuen?
—Hori azaltzea apur bat zaila da. Hasi ginen jotzen punk-rocka, Escorbuto eta horrelako taldeen antzekoa, talde guztiek bezala. Gero, lehengo gitarra-jotzaileagaz, hasi ginen anarko-punka egiten. Baina

Mikel sartu zen taldera eta estiloa apur bat aldatzen hasi ginen. Gaur egun, erreferentzia moduan agian Kuraia eta, nire kasuan behintzat, Dut da nahiko garrantzitsua. Agian Latzen ere bai, baina hori heavyagoa da. Beno, batzuetan esan didate Latzen edo Idi Bihotz taldeetako abeslarien antzeko ahotsa daukadala, baina ez dakit... Estiloa, ikusten duzunez, apur bat arraroa da, baina modu batean definitzeko, punk-rocka litzateke. ○

Igelak putzutik kanpo!

Corrado Masacciren igel-txotxongiloak Kultur Leioan, **ekainaren 30era** arte



Info+: www.kulturleioa.com

Zenbatetan joan zara txikitan zapaburuak harrapatzea? Erreketako putzuak bete-beteta egoten dira ugalketa garaian, baina erraz egiten digute irrist eskuetatik. Behin helduak direnean, ordea, zapaburuak metamorfosia burutzen du, hasieran hankak sortuz eta gero isatsa galduz: orduan bihurtzen dira igel. Hain zuzen ere, metamorfoosi hori irudikatu gura du Corrado Masacciren erakusketak: bere igel-txotxongiloak ikus daitezke Kultur Leioan ekainaren 30era arte.

Metamorfosia izanik anfibio horien ezaugarririk garrantzitsuenetakoa, erakusketak ere asko du metamorfositik: hain zuzen, arrautza-ontzi bat igel-txotxongilo bilakatzea. Izan ere, erakusketa-

ko igel gehienak arrautza-ontzi izan dira aurretik eta, apurka-apurka, igel mota desberdinetan eraldatuz joan dira. Gustavo Igela pertsonaia ezagunetik datorkio Masacciri igelekiko zaletasuna, “*hurbila eta atsegina*” iruditzen zitzaioelako.

Egunotan Leioara ekarritako txotxongiloak urte askotako lanaren emaitza dira eta umeek asko gozatuko ei dute hareguz: “*Begi onez hartu dute erakusketa, igel ezberdinak egin eta mugiarazi izan baititut beraientzat*”, dio Masaccik. Azken finean, umeek bultzatu dute hau dena prestatzera: “*Bisita gidatuen ostean umeek eskolan egindako marrazkietan igel-irudiak agertzen ziren askotan*”. Hortik erakusketa honetarako ideia. ○

Txorierriko jaiak

- **Ekainak 7, barikua:**
 - Txupina eta jaien hasiera (18:00)
 - Koadrila-jaietsiera (18:05)
 - Oliver magoa (19:30)
 - DJ Iker Fernandez (22:30)
 - DJ Jumbi (01:00)
- **Ekainak 8, zapatua:**
 - Herri-Krosean izen-emotea (10:00)
 - Herri-Krosa (11:00)
 - Tortilla-txapelketa (11:30)
 - Umeentzako puzgarriak, zezen-mekanika eta ludoteka (11:30)
 - Igel eta bolo txapelketa (12:00)
 - Txapel-jaurtiketa (12:00)
 - Mus-txapelketa (16:30)
 - Koadrilen arteko jolasak (16:30)
 - Txorizo-jana (19:30)
 - Xaibor (19:30)
 - Erromeria Haker taldeagaz (23:00)
- **Ekainak 9, domeka:**
 - Leioako musika-banda (10:00)
 - Gozogintza-lehiaketa (11:00)
 - Talo-tailerra (11:00)
 - Txapela-jaurtitzea eta petanka (12:00)
 - Erlajupeko-igoera (12:00)
 - Dantza-erakustaldia (12:30)
 - Herri-bazkaria (14:00)
 - Tute-lehiaketa (16:30)
 - Karaokea (16:30)
 - Sari-banaketa, zozketa eta jaien amaiera (20:00)

KULTUR PROIEKTUEN MAHAINGURUA

Kultur Proiektuen inguruko mahaingurua izango da Ongi Etorri Herri Topaleku (Iturribide, 7) barrieren lehen ekitaldia. Ekainaren 4an egingo dute, martitzenean, 19:00etan. Solasaldian parte hartuko dute Bizkaiko antzeko egitasmoetako hainbat lagunek: Gernikako Astra, Mamarigako Kultur eta Arrigorriagako Ez dot Sinisten. Bakoitzak bere proiektua aurkeztuko du entzuleen aurrean, kafe-tertulia formatoan. Leioa Biziberritzen taldeak bultzatu du Ongi Etorri Herri Topalekua egitasmoa.

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fueraordas
Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaileak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan
F.M. 102.6 Mhz
www.bizkaiairratia.com

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977-6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO

[erandio]

Jose Manuel Blasco Luz > Gaurko Nagusia fundazioko gerentea

“Nagusiek jendartearen garapenari egiten dioten ekarpena aitortzeko sortu genuen fundazioa”

Krisiaren Aurkako Bitaminak jaialdia burutu dute Erandion. Nagusien kontakizunek eta bizipenek osatu dute ekimena, gaurko egoera gainditzeko lagungarri izan daitezkeelakoan. Gaurko Nagusia fundazioak antolatu du eta bertako gerenteagaz berba egin dugu euren egitekoa ezagutzeko.

—Krisiaren aurkako bitaminak dira gure herriko nagusiak? Zergatik?

—Krisiaren aurka belaunaldi baten esperientzian eta bizipenetan oinarritutako narrazioak aurkeztu, sustatu eta zabaltzeko egin dugu jaialdia. Asmoa zen nagusiek euren esperientziagaz egitea ekarpena egungo egoerari. Krisi egoera bat bizi dugu eta ekimenaren helburua da krisi horri aurre egiteko ideiak emotea, negusiek euren esperientzia edo bizipenak arazoak gainditzeko laguntzea, izan ere, egungoa baino askoz egoera okerragoak bizi izan dituzte. Adibide horiek konfiantza eta indarra ematen baitute: egoera zailagoak gainditu badira hau ere gaindituko dugu. Esperientzia horiek erakusten dute gure inguruan baliabide asko daukagula, baina ez gara pausatzen begiratzeraz eta pentsatzeraz, ez gaudelako ohituta horrelako bitartekoak bilatzeraz.



Info+: www.vitaminasanticrisis.com

—Zein da elkartearen egiteko orokorra?

—Fundazioa jaio zen saritzeko eta aitortzeko pertsona nagusiek jendartearen garapenari egiten dioten ekarpena. Horixe da fundazioaren egiteko nagusia eta, horretarako, Gaurko Nagusia sariak sortu genituen duela hiru urte, jendartearen behar garrantzitsua egiten duten pertsona nagusiak saritzeko; orain laugarren edizioa prestatzen ari gara.

—Zelan uztartzen dira ekimen biak?

—Ekitaldi biak lotuta daude. Bitaminen

ekimena garatzeagaz batera oharitu gara jarduera sozial bat garatu behar dugula, zertarako eta aipatu tendentzia hori bultzatzeko nagusien artean. Beraz, krisiaren aurkako bitaminak ekimenak sustatzen du nagusiek euren ekarpena egitea jendarteari. Saritu bai, baina ekarpena bultzatu ere bai. Izan ere, hautagai danek diotenez, zoriontsuen dira gauza baliagarriak egiten dituztenean. Horregatik abiatu ditugu bitaminak bezalako ekimenak, nagusiak ekitera bultzatzeko. ○

Aste akaburako planik ez?

Erandion **badaukazu** zer egin: **jaiak** izango dira **Erandiogoikoa**, Faoeta eta **Martiartun**



Martiartun ekainaren 13tik 16ra ospatuko dituzte San Antonio jaiak

Jaizale onak erandioztarrak, aste akabudanetan badago jairik auzoren batean. Egunotan Erandiogoikoa ospatzen ari da Gorpuztu jaiak, ekainaren 7 eta 8an Faoeta auzoko jaien txanda izango da eta, 13tik 16ra, Martiartuko sanantonioena.

Azken horietako egitaraua helarazi digute eta egongo da jaiak zelan ospatu Martiartun. Ekainaren 13an izango da San Antonio eguna, aurten egunean, eta beraz, eguerdiko meza egun horretan egingo dute, baita nagusientzako luntxa ere.

Parranda, barriz, barikuagaz iritsiko da. Gauean ipini dute hitzordua disko-festarako; 23:30ak aldera hasiko da. Zapatu-

an, barriz, egun osoan egongo dira ekitaldiak. Sukalkirako izen-emotea 08:30ean hasiko da eta goiz osoan garatuko da lehia-keta. Arrastian sokatira txapelketa egingo dute 17:30etik aurrera, eta horren ostean izango da bertso-saioa, 20:00ak aldera. Bitartean sukalki lehiaketaren sari-banaketan egingo da, umeentzako jolasak izango dira eta saiheski errea dastatzeko aukera egongo da, beraz on egin! Eguna biribilduko du Trikiario taldearen erromeriak.

Eta jaiak domekan amaituko dira: eguerdian meza egingo dute eta arrastian idi-probak. Umeentzako jolasak ere prestatu dituzte. Ondo pasa! ○

ARGIHIZKIAK IKUS DAITEZKE ORAINDINO

Ez dituzula argazkiak ikusi? Horietan oinarritutako testua ederrak irakurtzeko aukerarik ez duzula izan gaur arte? Lasai egon, oraindino badaukazu egun batzuk udal erakusketa-aretoa hurbiltzeko eta ArgiHizkiak 2012 erakusketa dastatzeko. Maiatzaren 31ra arte egongo dira ikusgai irudiak eta testuak. Gogoratzea ere aurtengo lehiaketa abiatu dugula eta testuak bidal ditzakezula korreo elektroniko bitartez, argi.hizkiak@gmail.com helbidera. Argazkiak ikus ditzakezu interneten. Animatu, idatzi eta lehiatu!

Info+: egizu.org/literatura/argi-hizkiak

UDAKO IKASTAROAK GAZTE BULEGOAN

Gazte Informazio Bulegoak prest dauka uztailerako ikastaroak eta izena emon daiteke ekainaren 3tik 21era. Lau arlotan bereizi dituzte. Sukaldaritza arloan landuko dituzte AEB, Frantzia eta Galiziako sukaldaritza, patatak eta kroketak. Eskularen arloan, barriz, *klimt* erako koadroak, poltsak gordetzekoak, *scrap* eta txartelak, gore makillajea, jarroiak, sukaldariko arbela eta *decopatch* moduko lanparak egiten irakatsiko dute. Gainera, ikastaro bereizi bi antolatu dute: txakurrentzako oinarritzko obediencia eta lerro-patinetan ibiltzen ikasteko. Orduetegi eta prezioen barri daukazu Gazte Informazio Bulegoan.

Info+: 94 602 58 91 eta gazteinfo@erandioko-udala.net

A TROMPICONES OBRA ASTRABUDUAN

Uda gertu dago, baina antzerkiari lekutxo bat egin diote Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean: *A tropicónes* lana antzeztuko du Luna Ilena taldeak ekainaren 1ean, 20:00etan. Sartzea 2 euro ordaindu behar da. Ohi legez, sarrerak salgai daude kultur etxean bertan eta Udalaren Kultura sailean (udaletxean). Segi azkar, txartel danak agortu baino lehen!



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

BAKARRIK

19,90€

BEZ BARNE



global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

Lan-gatazka Sopelako Udalean > bertsio bi aurrez aurre

Batzuentzat, gehiegizko pribilegioak; beste batzuentzat, lan-baldintza duinak

Hilak daramatzate Sopelako hainbat udal-langilek borrokan galdu ei dituzten lan-baldintzak berreskuratzeko ahaleginetan. Udalak horien galera ukatzen du, eta langileek dituzten baldintza duinak zabaltzen ditu. Bertsio bi aurrez aurre, eskua emonez bat egitera kondenatuta.

“Langileen lan-baldintzak mantentzea aldarrikatzen dugu”; horrela azaldu digu Veronica Gorritxo ELAko Eskumaldeko Gizarte Laneko arduradunak. UK-k langileakaz berba egin gura izan zuen, baina hauek gonbitea onartu ez, eta Gorritxogaz mintzatu gara. Hala, ELAko arduradunaren arabera hauek dira gertatu diren zenbait murrizketa: *“2010etik aurrera, besteak beste, soldata izoztu, eta Elkarkidetza langileen fondo-pentsioa ordain-*



Urrian hasi ziren langileak borrokan

tzeari utzi dio Udalak”. Baina langileek ez dituzte soilik murrizketak salatu, Gorritxoren aburuz, Udalak ez ditu ondo kudeatu murrizketa horiek: *“ELAk gehiengo sindikala dauka Udalean, eta murrizketen berri emateko, deitutako bat-*

zarrean, beste sindikatuen presentzia aldarrikatzen zuten; zentzurik ez daukana, gu baikara langileen ordezkari sindikal bakarra. Hasieratik gauzak nahasten dira, egoera hori ikusirik, langileek zein ordezkariok planto egin dugu, eta horrela, Udalak deitutako mahai orokorra ez da osatu.” ELAren hitzetan, gatazka urrian hasi zen, baina sindikatuak zein langileek gatazka konpontzeko proposamenak egin dituzte: *“Guk azaroan proposamen bat egin genion Udalari, eta urtarrilean horren inguruan galdetu, eta ez zuela aztertu erantzun zigun; tarte horretan, gainera, langileen egutegia arautzeko dekretu bat atera zuten, hori gutxi balitz, Udalak langile-asanbladak deitu ditu, sindikatuaren lanari, eta ordezkari zari kasu egin barik. Jokaera hori ez zen zuzena izan”.* Galdutako baldintzen artean,



udal-langileek medikuarenera joateko egun osoa hartzeko zeukaten aukera dago; orain, barriz, 4 ordu izango dituzte. Baldintza horren harira Go-

“Kontua ez da egun osoa medikuarenera joateko kentzea; kontua planteamendua da”

rritxo hori egiteko moduari buruz ari da: *“Askok pentsa dezake: zer nolako aurpegia daukaten egun osoa aldarrikatzeagatik, baina kontua ez da eguna. Planteamendua da kontua; baldintza hori ez da inon idatzita egon, baina ohitura izan da. Larriena da Udalak hau gehiegi dela esan, eta kendu duela; hori ez da bidea, gauzak negoziatu egin behar dira”.* Horrez gainera, Gorritxok

adierazi duenez *“Sopelako Udalaren baldintzak eskualdeko onenak dira, baina horrek ez du esanahi horiek kentzen utzi behar dugunik. Urteetako langile borrokaren ondorio dira, eta mantendu behar ditugu”.* Arestian, aipatu bezala, Udalak 2012ko ekainean Elkarkidetza fondoan pensioa ordaintzeari utzi zion, *“Beraiek Rajoyren dekretua aitzakiatzat hartzen dute, baina EAEn 55 udalek fondoa ordaintzeari utsi diote; beraz, filosofia kontua da”.* Horrez gainera, lan-akordioez mintzatu da ELAkoa: *“Bada akordio bat plenotik pasa ez dena, Udaltzaingolari dagokiona, baina beste guztiak aurreko gobernuren garaian egindako borroken ondorio dira; gu negoziatzeko prest gaude, lan gatazka bukatzeko gogoa daukagu-eta”.* ○

ARGITZEKO ASMOTAN

- Urrian, Udalak neurri barriak hartu, eta langileek horien aurka egin zuten. Udalak horretaz hitz egiteko prestatutako mahaiari, langileek planto egingo diote, euren ustez “modu egokia” ez delako izan.

- ELAren aburuz, azaroan lan-proposamen bat egin, eta Udalak ez du erantzun.

- Udal-gobernuaren esanetan, urtarriletik gaur egunera, afera ebazteko 15 bilera egon dira.

- Urtarriletik aurrera, langileak udaletxean kontzentrazioak hasi ziren; astelehen, eguazten eta barikuetan.

- Zabaltzen ari ei diren zurrumuru eta ideia okerrak argitzeko EH Bilduk maiatzaren 10ean herri asanblada deitu zuen, langileek dituzten baldintza guztiak herriratu, eta euren jarrera salatzen.

Sopelako udal-gobernuen berbak

Gatazka beraren bestelako ikuspegia eta bertsioa: Sopelako Udalaren iritzia



Maiatzaren 10eko herri-asanbada

Langile-ordezkariaren iritziak jaso ostean, gatazka honen beste aldean dagoen Sopelako udal-gobernuari galdetu eta Langileen eta Herri Segurtasun zinegotzi Alain Goldarazek erantzun digu. Udalak egindako murrizketen inguruan itaunduz gero, ondorengoa izan da bere erantzuna: *“Azken urte erdian Rajoyk ateratako dekretuek arazo larria ekarri dute langileen baldintzetan; 2011ko abenduan Elkarkidetza kobratzea debe-*

katzeko dekretua atera zuen; 2012 akabuan, langileen bajak kobratzeko kenketa batzuk egin zituzten, baita ordainsaria kendu ere. Horrez gain, langileen egun libreak murrizteko dekretua ere atera zuten. Sopelako Udalean langileen lan-eskubideak bermatzeko, eta sistema publikoaren alde egiten dugulako, bideak bilatzen aritu ginen; hala, dekretuen baldintzak ez aplikatzeko. Rajoyren langileenganako eraso ikusirik, saiatu gara

udal-langileen baldintza guztiak mantentzen, eta lortu ere, lortu dugu. Bi kasu salbu: 2012. urtean ez da soldata igoerarik egon, eta Elkarkidetza ordaintzeko bide eza”.

Goldarazen berbetan, Udalak Foru Aldundiko aurrekontuetan %12ko

“Foru Aldundiak %12 murriztu du Udalaren partida; ezin izan da soldatetan KPI igo”

murrizketa izan du, eta horrek, bere aburuz, galarazi du 2012an soldaten KPI igozea. Elkarkidetzaren ez ordaintzeari buruz galdetean, hau azaldu du:

“Guk ez dugu biderik topatu Elkarkidetza ordaintzeko, ez gara esaten ari ordainduko ez dugunik; baina momentuz ez dugu modurik hori ordaintzen jarraitzeko”.

Bestalde, euren ustez, gatazkaren sorburuari buruz ere mintzatu da zinegotzia: *“Guk uste dugu hemen arazoa zera dela: udaltzaingoa orain arte bete behar izan duen urteko ordu kopurua; izan ere, aurreko gobernuarekin, EAJrekin Udaltzaingoa sinatu zuen hitzarmenean adostu zuten udaltzainek beste langileek baino 4,5 ordu gutxiago egingo zutela lan; langile guztiak 1.518 ordu egin behar zituzten eurek izan ezik; eta hitzarmen hura ez zen inoiz plenotik*

igaro. Udalak erabaki zuen ordu kopurua mantentzea, ez areagotzea, baina denek bete beharko zuten ordu kopuru hori, udaltzainek ere bai”.

Halaber, Goldarazek adierazi duenez, *“langileek irabazitako baldintza guztiak errespetatzen ari gara, plenoetan onartutako baldintza guztiak begirunea diegu”.* Une honetan gatazkaren egoerari buruz galdetean, zera erantzun digu: *“urtarriletik hona 15 bilera inguru izan ditugu ordezkariakaz, horregatik harritu gaitu langileek urtarriletik hona hartutako jarrera (kontzentrazioak, besteak beste). ELAri galdetu genion: beste udalerrietan murrizketak egon dira, zergatik han borrokarik ez, eta hemen bai?”.* ○

ZINEMA EKAINA OSOAN KULTUR ETXEAN

Ekainean etxeko txikiak zein nagusiek hainbat pelikula ikusgai izango dituzte kultur etxean. Ekainaren 2an, barbarako, *Hotel Transylvania* animaziozko pelikula proiektatuko da arrastiko 18:00etan; ekainaren 9an, umeentzat ere *Haritzaren bihotza* pelikula jarriko dute 18:00etan. Helduentzat, ekainaren 15ean *La vida de Pi* filma eskainiko dute iluntzeko 19:00etan. Amaitzeko, ekainaren 30ean, haurrentzako *Rio* euskarazko pelikula eskainiko dute (18:00). Emanaldi danak kultur etxean eta doan izango dira.

MUSIKA ETA DANTZA ERAKUSTALDIAK

Oraingo ikasturtearen amaieragaz batera, ekainaren 14an, 18:00etan Berangoko Udala Musika Eskolako ikasleek entzunaldia eskainiko dute kultur etxean. Musika emanaldiaz gainera, dantza erakustaldia ere izango da ekainaren 22an, 19:30ean kultur etxean bertan, "Adagio" Ballet Elkartearen ekimenez. Hala, urtero legez, ikasturte akabuko emanaldiak gozatzeko aukera izango dugu aurten ere.

UDALEKUETAKO PARTAIDEEN BILERAK

Udalekuearako matrikulaldia jada itxita dago. Aurtengoa eskaintza zabala da: hiru udaleku, guztira. Halere, onartutako umeen gurasoek ekainaren 7ra arte ordaintzeko epea izango dute eta hilaren 13an gurasoen bilera deitu dute, 18:30ean Berangoetan.

*Croissanterie
Brioche*



MONTE JAIA 1
48995 Gernu (BIZKAIA)
croissanterie-gernu.blogspot.com 94 460 86 48

Bertoko mahatsa dastagai Ekainaren 9an berangoztarrek XIII. Ardoaren Eguna ospatuko dute



Txakoli-ekoizle danak berangoztarrak dira

Daborduko Ardoaren Egunaren XIII. edizioa antolatuko dute Txakoli Laguntzaileek. Oraingoan, Berangoko 21 txakoligileen ardoak izango dira dastagai. Hala, ekainaren 9an, 12:00etan hasita frontoi aurrean, Nagusien Etxearen ondoan, hainbat txakolinegaz gozatu ahaliko da; bertaratutakoek nahikoa izango dute 4 euroko edalontzia erosi, eta horregaz gura beste ardo edatekoa aukera izango dute, txakolina amaitu arte, behintzat. Txakolinaz gainera, txitxiburruntzia ere izango da, edaria laguntzeko. Eta ez bakarrik jana eta edan; izan

ere, goizean goizetik txistulariak eta musikariak izango dira Ardoaren Eguna alaitzen. Berangoko txakoligineek aitortu legez, "aurtengo txakolina iazkoa baino gozoagoa eta hobea izango da, iazko eguraldiak ez baitzion lagundu mahatsen uztari; aurtengo uztak, baina, mahatsak gozotu eta ardo ederra sortzeko aukera eman digu". Arestian esan bezala, aurtengoa XIII. edizioa da; horrek Berangon txakolinaren kultura eta ohi-tura zein zabaldua dagoen adierazten du. Eta antolatzaileen esanetan, egunak gero eta harrera hobea dauka. ○

Koldo Somokueto > Eusko Ikaskuntzako historialari urduliztarra

"Urdulizko II. Errepublika eta Gerra Zibilaren garaia zabaldu gura dugu"



2 urte daukate azterketa egiteko, 2015ean liburua argitaratzeko asmoa daukate

Eusko Ikaskuntzak eta Urdulizko Udalak II. Errepublika eta Gerra Zibila Urdulizen aztergai izango duen lan zabaldua bultzatu dute; Koldo Somokueta urduliztarrek azterketa egingo du, garai hartako gertakari esanguratsuak urduliztarrei argitan emateko.

—Zein helburu dauka azterketak?

—Udaletik jaio zen azterketa egiteko gogoia; udalerraren historia berreskuratzeke asmoa zuen, batez ere, II. Errepublika eta Gerra Zibilaren garaian. Beraien kontaktuan jarri ziren Eusko Ikaskuntzarekin proiektua aurrera ateratzeko, eta horrela sortu zen proiektua. Azken finean, historiako atal hori berreskuratzea gura dugu.

—Zein bide jarraituko duzue, zer egingo duzue azterketan?

—Bi urteko azterketa egingo dugu, hainbat fase izango dituen; alde batetik, lan bibliografikoan azterketa egingo

dugu, ondoren, ahozko testigantzak ere egingo ditugu, horiek lehenbailehen egingo ditugu; izan ere, adina dela-eta, gaur egun garai hartako jende gutxi gertatzen da bizirik. Horrez gainera, artxi-boetan ikerketak egingo ditugu: udal-

**«Ahozko testigantzak,
eta artxibo ugari
aztergai izango ditugu»**

artxiboa, nazionalismo artxiboan, hemen dagoen "Salamankako paperak" dokumentua ere erabiliko dugu. Gainera, garai hartan prentsan argitaratutako albisteak eta datuak ere jasoko ditugu.

—Garai hartako gertakari esanguratsuren bat aipatzeko?
—Gertakari esanguratsuen artean, tropa frankisten heltzea dago; horiek udal-gobernuko kideak epaitu eta heriotza zigorrera kondenatu zituen, instituzio demokratikoak desegiteko. ○



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

BOSGARREN EDUKIONTZIA URDULIZEN

Daborduko herrian hamar edukiontzi marroi daude; Udalak birziklatze-sistema hori sustatzeko egindako informazio-kanpainari esker, Urdulizko 195 familia ari dira edukiontzi marroia erabiltzen. Hala, apirilaren 23an eta 25ean "birziklatze-kita" eman zitzaizkien kultur etxean; horretan ontzi marroi txiki bat, konpostatze poltsak, eta edukiontzi marroia irekitzeko giltza zeuden. Herrian izandako harrera ona ikusita, Udalak bigarren faseari ekingo dio: ontzi marroi gehiago jarriko ditu. Gura duenak birziklatze-sistema honetan parte hartzeko aukera du, horretarako kultur etxean izena emon beharko du.

URIBE ESKUALDEKO BOTIKEN ERAKUSLEIHOEN SARIA

Maiatzaren 31n, urtero, tabakorik gabeko mundu eguna ospatzen da; aurten horren harira lehiaketa bat antolatu dute Uribe Eskualdeko botikek parte har dezaten. Eta lehiaketaren sariak hilaren 31n, Fadurako kiroldegian 11:00etan banatuko dira. Alde batetik, farmazien erakuslehoietan jartzeko apaingarririk onenak sarituko dira; horrela, sari bana emango zaio udalerrri, mankomunitateko botika irabazleari; eta bestetik, ondoren, eskualde osoko botika bati bigarren sari bat emango zaio. Gainera, lehiaketan parte hartu duten botika guztiei diploma bana emango zaie.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Plentzia

Ekainaren 1ean dator triki-soinua; Bizkaiko Trikitixa Eguna



Info+: www.bizkaikotrikitixaelkartea.com

Plentzia izango da aurten Bizkaiko trikitilarien bilgune nagusia; izan ere, bertan, ekainaren 1ean, Bizkaiko Trikitixa Elkarteak Bizkaiko Trikitixa Eguna ospatuko du. Eguerdian trikitilariak Plentziako Eleiz-plazan batuko dira, eta ordu erdira, 12:30ean kalejirak eta triki-poteoa izango dira herrian. Bazkaria, barriz, Jai-Alai frontoian izango da, bertaratzen direnek paella, haragi-bolak saltsan, eta postrea bazkaltzeko aukera izango dute. Bazkariak 18 euro balio du; eta joan gura duenak Bizkaiko Trikitixa Elkarteako kontu korrontean diru-sarrera egin eta bertan izen-abizenak jarri beharko ditu. Honakoa da antolatzaileek helarazitako kontu korrontea: 2095 0022 00 9105970729. Bazkarirako izena emoteko (eta ordainketa egiteko) azken eguna maiatzaren 28a izango da. Bazkariak gainera, arrastian, 19:00etan erromeria izango da, Saltoka taldeagaz Astillero plazan.

Honezkero, aurtengoa laugarren Trikitixa Eguna izango da; 2010ean Getxon ospatu zen, 2011n Iurreta-Durangon, Euskal Herriko Trikitixa Eguna izenagaz, eta, iaz, 2012an Loiun ospatu zuten. Naiara Billalabeitiak, Bizkaiko Trikitixa Elkarteako kideak adierazi digu-

«Egunaren helburua trikia kaleratzea da, baita trikitixa ikasleak animatu eta motibatzea ere»

nez, *“egun horren helburu nagusia trikitixa kalera ateratzea da, eta batez ere, trikitixa ikasten ari direnak animatzea, motibatzea, baita, noski, ondo pasatzea eta elkar ezagutzea ere”*. Antolatzaileek azaldu duten legez, aurreko urteetako edizioetan 100 trikitilari inguru batu ziren egun pasa; halere, trikitilari izan edo ez, edozein joan daiteke, egunean zehar izango diren ekimenetan parte hartzeko. ○

Mai. 27 - Eka. 11

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Patchwork-tailerra.** Maiatzaren 30era arte. Goñi Portalen.
► **Ibilgailu klasikoak.** Ekainak 2, 09:30etik aurrera.

ERANDIO

► **ArgiHizkiak.** Maiatzaren 31ra arte. Altagako erakustaretoan.

GETXO

► **Arte aplikatuak.** Ekaiaren 1era arte. Algortako kultur etxean.
► **Silencio, se fotografía (Jon Astorkiza del Val).** Ekainaren 5etik 30era. Algortako Torrean aretoan.

BARRIKA

► **Barrikako II. Argazki Lehiaketako irudiak.** Ekainaren 3tik 21era. Nagusien Etxean.

GORLIZ

► **Gorlizko 2013 Uda.** Ekainaren 4tik 14ra. Sertutxenan. Doan.
► **Euskal jantziak.** Ekainaren 7tik 23ra. Sertutxenan. Doan.

MUSIKA

GETXO

► **El hombre que fue lunes.** Maiatzak 30, 20:00etan. Algortako The Piper's Irish Puben. Doan.

BERANGO

► **Dantza erakustaldia eta Nagusien Etxeko Abesbatza.** Ekainak 1, 19:00etan. Berango Antzokian.

LEIOA

► **Xaibor.** Ekainak 8, 19:30ean. Txorierriko jaiak.
► **Haker.** Ekainak 8, 23:00etan. Txorierriko jaiak.

Pako Aristik Sopelan emongo du hitzaldia maiatzaren 30ean

► **Literatura**
Literatura solasaldiak Sopelan eta Getxon

Apirilean izan zen liburuaren eguna, baina literatura urte osoan goza daiteke, eta gainera, liburuak ez dira formatu bakarra. Berbarako, proposamen interesgarri bi dauzkagu datozen egunotan gurean: literatura solasaldi bi. Lehen izango da Sopelako Kurtzio kultur etxean, maiatzaren 30ean. Pako Aristi idazleak eskainiko du *Euskara, hizkuntza bat bere bakardadean* hitzaldia; 19:00etan hasiko da. Bigarren hitzordua, barriz, Getxon dugu ekainaren 11n, Algortako kultur etxean. Skolastika elkarte Josune Muñozek hitz egingo du emakume idazle euskaldunei buruz, zehazki, euren lanak gaztelarera itzulitakoei buruz; hitzaldi hori ere 19:00etan hasiko da.

• **Non:** Kultur etxeetan • **Noiz:** Maiatzak 30 eta ekainak 11

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Ipuin kontalaria.** Maiatzak 29, 18:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Doan.
► **A trompicones.** Ekainak 1, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

GETXO

► **Eskola Antzerki Jardunaldiak.**

Ekainak 2, 11:30ean eta 17:00etan. Andres Isasi musika eskolan.

► **Kontularien kluba, denboraldi amaiera.** Ekainak 7, 19:00etan. Algortako kultur etxean. Doan.

► **Barry barrez.** Ekainak 6, 09:00 eta 11:00etan Areetan, eta 17:00etan Algortan. Doan.

BERANGO

► **Hay motin, compañeras (Laberinto talde amateurra).** Ekainak 8, 20:00etan. Berango Antzokian, 1 euro.

GORLIZ

► **Magia ikuskizuna.** Ekainak 9, 18:00etan. Batzokian.

ZINEMA

BARRIKA

► **El origen de los guardianes.** Maiatzak 31, 18:00etan. Ander Deuna kultur aretoan.

GETXO

► **Miel de naranjas.** Maiatzak 31, 21:00etan. Areetako Andres Isasi musika eskolan. 2,90 euro.
► **160 metros: una historia de rock en Bizkaia.** Ekainak 4, 19:30ean. Algortako kultur etxean. Doan.

BERANGO

► **Hotel Transylvania.** Ekainak 2, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.
► **Haritzaren bihotza.** Ekainak 9, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

BESTEAK

GETXO

► **Serifalaris topaketa.** Maiatzak 31, egun osoan. Areetako Andres Isasi musika eskolan.

GORLIZ

► **Aurkezpena: Gorlizko Plangintzan genero ikuspegia sartzeko proiektua.** Ekainak 10 eta 11, 18:30ean. Sertutxenan.

LEIOA


► **Gaztetan lehiaketaren sari-banaketa.** Ekainak 7, 19:30ean. Kultur Leioan.
► **Mahaingurua: Kultur proiektuak.** Ekainak 4, 19:00etan. Ongi Etorri Herri Topalekuan. Doan.

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34



Sopelan, 1933an

idiak lanerako
eta garraiorako

Pedro Maria Legarra eta Jesus Markaida dira argazki honetako protagonistak, baita euren idiak ere: *Sopelana, herri baten aldiuneak* liburuan jasotakoa da (Sopelako Udalak eta Deiak argitaratua). Traktoreak asmatu aurretik, baseritarrek lanerako eta garraiorako erabiltzen zituzten idiak eta, horregatik, gaur egun idi-probak egiten dira gure herrietan. Hurbilekoren bat aipatzearen, maiatzaren erdialdera egin ziren proba batzuk Urdulizen. Oraindino ere idiak estaltzeko manta izaten da proba horietako garaikurra, eta ohitura hori hutsetik ez datorrela erakustera dator irudi hau, gure kultura eta historiaren lekuko ederra.

Sopelana, herri baten aldiuneak liburutik hartua

[berbetan]

Jokin de Pedro (Bilbo, 1955) Gorlizen bizi da orain 15 urte inguru; askok eta askok ezagutuko duzue, izan ere Getxo III gero Aixerrota institutuko euskara-irakasle izan delako azkeneko 25-26 urteetan, eta bertoko zuzendari ere 3 urtez. Euskal Filologiako lehenengo promozio lizentziaduna (Deustuko Unibertsitatea), “Sarrionandia eta horrekaz batera ikasitakoa...”, berak aipatu legez. Bere lumak euskal literaturan ere utzi du arrastoa, bereak dira *Lau animalia ipuin kontari* (Erein, 1992), *Irurac bat* (Elkar, 2008) eleberria, *Izu-izua* (Elkar, 2012) ipuin-sorta eta eta orain dela hilabete eskas plazaratu duen *Etsai gordea* (Elkar, 2013), genero baltzeko liburua, gazteei begirakoa.

Jokin de Pedro

Irakasten eta baltzean idazten

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **Hodei Torres**

—Literatura lanak baino lehenago, has-tapenetan hainbat eskola-liburu edo ikas-material idatzi zenituen.

—Aixerrotako lehenengo urteetan ez ze-goien euskarazko testu-libururik, eta orduan hor ibili ginen Joseba Butronekin eta Jose Mari Olangarekin batera, apunteak egiten eta... Azkenean, Erein argitaletxeagaz ados jarrita, euskarazko lehenengo liburuak argitaratzen hasi ginen, Euskal Hizkuntza eta Literaturarako... Eta hala egin genuen lehenengo liburua, gero bigarrena, hirugarrena... Metodologia bat egiten ibili ginen lehenengo urte haietan. Eta hortxe hasi nintzen ni behintzat lehenengoz liburuekin kontaktuan; eta beste hau, literaturarena, gero-txoago etorri da.

—*Irurac bat*, *Izu-izuan* eta *Etsai gordea* liburu barri hau ere genero baltzekoa edo poliziakoa da. Gustura sentitzen zara genero horretan...

—Bai, gustura sentitzen naiz; baina, ez dot jarri nire burua zuzenean pentsatzen “egin dagidan genero beltzeko liburu bat...” Holan etorri da, ideia bat etorri eta

“honi forma eman behar deusat... liburu formatura ekarri eta...”, garatzen hasi eta ez dakizu nobela laburra, luzea, ipuina edo zer izango dan. Ideiak etorri ahala, hasi nintzan garatzen; baina, ideiak edo istorioak berak baekarren beragaz genero mota bat: beti jakinminetzko zerbait, misteriozko zerbait, pertsonaiaren bat e.a. Eta hortik jo behar zan, genero horretako nobela batera; beti jakinmina bilatu, irakurlea pixka bat harritzea edo eskutik eroatea narrazioan zehar... Orduan, ezau-


“Ez daukat denbora askorik idazteko, denbora asko behar dot... ez daukat erraztasunik jarri eta oparo idazteko”

gari horreek apurtxo bat niri burura etorritako istorioek emon dabez. Nik, generoa, bai gustukoa dot, baina ez da irakurtzen dodan gauza bakarra, ezta idazten jarraitzen badot idatziko dodan gauza bakarra ere; ez dot horretan espezialdu gura, baina holakoxeak urten dabe hirurak, bai egia da...

—Gazteei begirako lan legez sailkatu dute... Zeuk kontzienteki hartutako erabakia izan da?

—Ez, nik ez dot hartu erabaki hori. Nik istorioak egin, eta beno argitaletxean esan zuten “hau hemen sartuko dugu...”; gero bestea be hortik joan zan eta hirugarrena be... Ez dakit erabili daben irizpidea zein izan dan, luzera, irakurterraza izatea, agian entrentenigarria edo... ez dakit nik! Nik ez dot holan egin, kontzienteki ez behintzat gazte jendearentzat; baina, egia

da, gazteen artean nabilela beti, lanean eta beti nago jende horregaz, beti liburuak gomendatzen eta agintzen, eta gustatzen jat euren gustuko liburuak agintzea... Horrek nahitaez edukiko eban bere eragina agian nik idatzitako istorioan, agian jende hori daukat gogoan... behar-bada hori ikusiko eban argitaletzekoak,



ez dakit... Baina, nik uste dot bigarrena bereziki... Lehenengoa *–Iruac bat-* beharbada bai pixka bat tonua arinagoa edo izan daiteke, baina bigarrena *–Izu-izua* ipuin bildumatxoak- ez dot uste irakurle neutral batek hartuta esango leukenik “hau gazte jendearentzat da”... Eta hirugarren hau, esango neuke, bien arteko zer-bait dela; beharbada haria pixka bat lehenengoarena da, hau da, nobela beltz konbentzionala da: badago arazo bat, delitu bat, ikerketa bat, polizia-inspektorea... Zentzu horretan beste milaka nobela bezalakoa da. Orduan, bai *Iruac bat*-en eta bai honetan errepikatzen dira genero horrek hain bereak dituen ezaugarriak, edo osagarriak hobeto esanda. Bestalde, hirugarren hau, zelan esan... landuagoa dala, pertsonaiak, trama e.a. Lehenengoa pixka bat jostalariagoa da beharbada, eta hirugarrena landuagoa atera da, hori esaten dabe behintzat irakurri dabeneak!

—Ez da denbora asko igaro aurreko lana aurkeztu zenuenetik. Zelakoa izan da idazketa-prozesua?

—Lehendik neukan istorioa buruan. *Izu-izua*-ko ipuinak ere argitaratu baino lehenagozik neukazan; lehenengo istorio bat idatzi nuen, gero etorri zen beste ipuin bat, handik sei hilera beste bat... Orduan, pentsatu nuen “hiru istorio hauek apurtxo bat hari batekoak dira... Bat ez doa inora, baina hiru izanda agian argitaratu leikez, agian misterio bildumaren batean...” eta Elkarrera bidali nebazan; eurek “ondo, egoki ikusten dugu, eta argitaratuko ditugu”. Eta *Etsai gordea* hau ere, ez dakit bada nik, besteekin batera edo hortxe sortu zan, aspaldi neukan, nahiz eta jarraian ez argitaratu. Elkarretik esan zidaten, “beno hau udabarrirako, zeren biak jarraian...”; eta nahiko jarraian argitaratu dira, baina tartetxoa egon da, bata udazkenean eta beste udabarrian kaleratu dira. Esan gura dot, nik ez dodala hau idatzi udazkenetik hona, baneukala ordurako... Nire lanagaz eta ez daukat denbora askorik idazteko, eta nik denbora asko behar dot idazteko,

oso astiro noa, ez daukat erraztasunik jarri eta oparo idazteko.

—Detektibeak dira generoko pertsonaiak nagusiak, halere, kazetariak ere badute bere lekua. Zuk telebistako kazetari Josu Arriola aukeratu duzu.

—Ez neuke jakingo esaten zergatik aukeratu dudan kazetaria; ageriko pertsonaia edo jendaurrean dabilena izatea gura

neban, arpegi ezagun bat... Beste barik, jokoa emoten ebalako liburuaren harirako, eta jakinmina pizteko... Ez dago beste arrazoi berezirik; bere iloba psikologikik aslea dan moduan, psikologia ikaslea zergatik? Bada hori ere ondo etorren hari-rako... Ideia bat dagoenean ideia hori hobeto garatzeko edo bideratzeko ingurumari batzuk behar dituzu; eta ingurumari horreek dira pixka bat narrazioan posibilitateak emoten deusuezanak, handik tiratzeko, misterio pixka bat gehiago sortzeko...

—Detektibe lanetan *Iruac bat*-eko Gorospe pertsonaia berreskuratu duzu.

—Ohitura da horrelakoetan inspektore bat edo ikertzaile bat sartzea, esan gura dot: delitu bat dagoenean, edo ustezko delitu bat, beti poliziak parte hartu behar

“Gazteen artean (...) irakurzaletasuna bizirik dago; ez dot uste gazteak nagusiak baino txarrago datozela horretan!”

dau, beti dei egiten jako baten bati atentatua badago tartean, edo mehatxuak... Ezinbestean sartu behar da polizia, beno ezinbestean... posible da ez sartzea, baina modu bat da. Eta modu horretan, behin poliziak edo ertzainak sartuz gero, esan nuen “beno, egin dagidan pertsonaia bat berezia edo, bere nortasuna daukana... eta

liburuari kolore apurtxo bat emoten deusona, esaera zahar asko esaten dituen eta ez dakit zer...”. Horregatik sortu neutsan pertsonaiari halako perfila. Eta liburu honetarako berreskuratzea-berreskuratzea ez da, beragaz jarraitzea dela esango neuke. Azken batean, *Iruac bat* holako polizi-eleberria da hala deitu nahi badozu; bigarrena ez, *Izu-Izua 3* ipuin dira, zeharo ezber-

dinak, hor ez dago polizia edo ertzaina sartzerik; eta hirugarrena, bai, *Iruac bat*-en hariakoa da. Orduan, berreskuratu baino jarraitu egin dut horregaz. Ez dakit beste inoiz erabiliko dudana, baina hor dago.

—Bizkaieraz egiten du Gorospek.

—Bai, kolore pixka bat emoteko. Azken batean, hizkera eta nortasuna lotuta edo doaz. Hizkera markatu bat darabil, berba egiteko modu bat, esaerak eta esamolde asko erabiltzen dituelako, berbetea, euskalki batean egiten du berba, bere erregistro bakarri dalako... hor sentitzen delako eroso. Eta pentsatu nuen: “hori egiten bada beste literatura, hizkuntza batzuetan, zergatik guk ez egin?!” Azken batean, liburu batzuetan idatzita egon leike baina pertsonaia batek hizkera konkretu bat izatea.

Saiatu naiz bizkaiera neutro bat erabiltzen, ez herri batekoa edo; bizkaiera batua edo deitu leiken hori... Edozein irakurlek arazo barik ulertzeko modukoa.

—Ahots misteriotsua duena ere agertzen da; oihartzun ezaguna dakarkigu... Badu oinarri errealik, errealitateko gertaeraren baten isla edo antzeman liteke lanean?

—*Etsai gordea*-ren kasuan ez; fikzioa da, ez dot nik ezagutu antzeko kasurik. Beti daukazu zelanbaiteko erreferentziaren bat, baten batek esandakoa, baina ez dot hur-biletik holako kasurik ezagutu. Egia da, irakurrita neukala... beno, ez dot datu askorik emon gura, baten batek liburu ira-urri gura badau ba... Askotan ezin da esan, arlo konkretu batzuetan sartuz gero ira-

kurleari pista batzuk emoten deusazuzelako, eta igarriko du nondik nora doan ezkutuko ahots hori, edo nor den... Orduan, esandakoa, liburu honetarako ez dot erre-alitatetik ezer jaso, edo hortik inspirazino-rik eduki... Ostera, *Izu-Izua*-n bai, badira gauza batzuk nik hurretik bizi izandakoak, baina ez dizkizut esango zeintzuk... Badaude bizipen batzuk inspiratu baino gehiago egin deustena ipuin batzuk.

—Keinu literariorik, omenaldi gorderik dago? Batzuk argi daude... ezkutuagorik?

—Kasu honetan, uste dut jarri dodana na-

—*Etsai gordea*-ren kasuan ez; fikzioa da, ez dot nik ezagutu antzeko kasurik. Beti daukazu zelanbaiteko erreferentziaren bat, baten batek esandakoa, baina ez dot hur-biletik holako kasurik ezagutu. Egia da, irakurrita neukala... beno, ez dot datu askorik emon gura, baten batek liburu ira-urri gura badau ba... Askotan ezin da esan, arlo konkretu batzuetan sartuz gero ira-

nire irakasle be izan zan, eta oso maite dut bere atsotitz bilduma: goitik behera irakur-ritu daukat eta uste dot lan oso-oso ederra dela, eta literaturtasunez betea gainera! Eta lehen galdetu dozunez zergatik Gorospe eta zergatik bizkaieraz, bada pentsatu nuelako: “zergatik ez bilatu eta erabili per-tsonaia bat aberastasun hori sartzeko, esa-dera zaharren mundua eta...!”. Eta hor ba-neukan Gotzon Garate gogoan, berak esaten ebalako “pertsona baten euskara maila neurtzeko, atsotitzak eta erretrauak erabil-tzen aberastasuna badauka, hori euskara

onaren eta aberatsaren seinale da”, hori esaten zuen beti, hori zan urrezko frogak bezala... Horrek ez du esan nahi ez dakizkienak euskara txarra daukanik, baina dakizkienak eta erabiltzen badakienak horrek ondo daki euskaraz seguru! Hori izan daiteke liburuan erabili dudana beste iturri bat, edo beste omenalditxo bat.

—Buruan edo esku artean badarabilzu zerbait barririk?

—Beste zer edo zer idazten banabil. Uste dut aterako dudana hurrengo, ataritzen badot behintzat, horretarako denbora eta jarraitasun pixka bat bilatzen badot... Oin dala hilabeteak hasi neban eta hor dago, baina badakizu, etorri dira azterketak eta beste, eta aparkatu egiten dot, udara arte ikutu be ez! Nik jarraitasuna behar dot idazteko, ezin dot egin “beno, egunean ordu bi eskainiko dizkiot...”, ezin dot, ez dot ezer egiten! Egun batzuk behar ditut pixka bat liburu egituratzeko, pentsatzeko, inguruko gauzak irakurtzeko, bilatzeko e.a. Orduan, jo dagigun hilabete bi barru hasten nazela barru... Eta istorio horrek eta liburu horrek aurrera egiten badau, ez da izango behintzat nobela bal-tza, ez genero horretakoa, hori seguru! ○

penak erderaz lehenago ateratzen dira... Neskek holakoak irakurtzen dabez eta asko, eta neskak beti irakurle hobeak dira mutilak baino. Genero hori nahiz eta anglosajioa izan itzulpenen bitartez hartzen dabe, erdaratik gehienbat. Mutilak gurago dabez abenturazkoak, Jon Arretxeren liburuak eta... mutilentzat egokiagoak dira, holakoak gehiago irakurtzen dabez; eta hor badauke zelanbaiteko arrakasta oso irakurzale ez direnengan. Gero, klasikoekin... gazteegiak dira batzuekin sartzeko agian, baina sartzen direnean beti erdaraz askoz ere itzulpen gehiago topatuko dabez... Baina, euskarazko itzulpenak apurka-apurka ugaritzen ari dira, gainera itzulpen onak... hori ere hobetzen dabil.

Gazteak eta irakurzaletasuna

—Gazteakaz lan egiten duzu egunero hur-hurretik... Euren irakurzaletasuna izenondo txarrakaz joan ohi da... —Nik ez dot txarto ikusten, batere txarto! Batzuetan harritu egiten naz. Imaginaren garaian bizi gara, hainbeste ordenadore, facebook, telebista eta... Halere, nik uste dot liburu bizi-bizirik dagoela, gazteen artean be bai. Oin, hor badagoz proportzinoak eta proportzinoak; baina, gazte askok irakurtzen dabe eta gustura! Beste batzuek zuk agindutako liburuak baino ez dabez irakurten, baina oso gustura gelditzen dira, eta “oso polita” dela eta esaten didate... Sentiberatasun hori ez da galdu. Eta adin honetan ez daukanak ez du esan nahi gero urte batzuk barru hartu ezin leikenik. Baina nik uste dut,

gazteen artean, beti proportzino batean, irakurzaletasuna bizirik dagoela. Etxean be ikusten dot, nire seme-alabak irakur-zaleak dira eta ingurukoak batzuk be bai; eta nire ikasle batzuren artean ere ikus-ten dot, beste batzuk ez, “a ze rollo!”-eta! Danetarik dago, nagusien artean be bai! Ez dot uste gazteak nagusiak baino txarrago datozela horretan!

—Euskal literaturari zer iritzi diote? Gaztelarazko gurago?

—Gaztelarazkoan aukera handiagoa dago eurentzat, batez ere adin horretako (14-16 urte) gazteentzat; eta modakoa-goak dira gaztelarazko liburuak. Maitasun-amodiozkoak batez ere nesken artean, hori dago modan, eta euskaraz hola-ko gitxi dago, itzulpenak ez badira; itzul-



MIKEL MARTINEZ DE OSABA

ArgIHizkiak'12

Egun gitxi falta dira aurtengo ArgIHizkiak lehiaketara testu laburrak bidaltzeko epea ixteko, hil amaierara arte daukazue horretarako aukera; eta zuen gogoia isiotzeko eta parte hartzera animatzeko iazko ekitaldiko argazkiak eta saritutako testuak dituzue orrialdeotan.

Gozatu, eta animatu:

Info+: www.egizu.org/literatura/argi-hizkiak

Argazkiak:

Mikel Martinez de Osaba, Konra Mugertza, Hodei Torres, Ane Basagoiti, Oskar Martinez, Jose Mari Martinez "Bubu", Jose Ignacio "Lobo" Altuna, Carlos Terreros, Pedro Zarrabeitia, Fatima Diez, Juan Luis Markaida, Naiara Goikoetxea, Peru Urresti, Gonzalo Azumendi eta Kepa Acero.



KONRADO MUGERTZA

Zapatilak. Zapata hilak? Ez, zapata biziak. Bira ta bila, oinez ta oinazez ibiliak. Lurraren larruan oinatzak, arrastaka arrakastaz arrastoa utzitakoak. Zapabiziak.

Goizalde Hernando Saratxaga

EZKERRA ESKUIN, ESKUINA EZKER

- Zer, ondo hor?
 - Bai, ni zoragarri. Ikuspegi berria dut leiho ertz honetan.
 - Bai, nik ere bai. Aspalditik nuen eskuinean egoteak zer zekarren jakiteko gogo mina.
 - Nik ere antzekoa gertatzen ari zitzaidala onartu behar dizut: eskuinekoa izan eta ezkerrean kokatzeak ikuspegia aldatu dit.
 - Hobera? Niri bai. Batak bestea behar dugula onartu dut. Eskuina eta ezkerria.
 - Onura ekarriko badiogu norbaiti, bai... Ezkerria eta eskuina.
 - Bereizita baina elkarrekin.
 - Bai. Ale, jarrai ezazu hara begira, lekuz azkar aldatuko baikaituzte...
 - Dagokigunera, zorigaitoz...
- Nor ausartuko zapatila hauen antzera paratzen?

Mari Joxe Azurtza Sorrondegi

Azken kate begia askatuko dut bihotzetik, iraganaren aingura astuna itsas barreneko haitz zorrotzetan hertsiki lotua geratu dadin.

Egoitz Arruti Uribe

Behar izatea. Amarenganako zilbor-hestea. Itsugarria den ustea. Ezjakitea. Den-dena sinestea. Errakuntzak ahaztea. Bakar batzuk aberastea. Jomugara inoiz ez iristea. Betiko itxarotea. Lortezina irrikaz ikustea. Nahiz gabe eragindako kaltea. Burua beldurrez bete. Bihotz tristea. Antsietatea. Lan astea. Eguneroko errealitatea. Bikotea. Senarra eta emaztea. Gehiegizko fidelitatea. Ar dominantea. Gerratea. Gerrate ostea. Bazterten duen gizartea. Askatasunik ez egotea. Norberaren maitea. Amorantea. Desiratzen den begitartea. Edota bular-arte. Edota hankartea. Hitzematea. Mutur bat zein bestea. Limitea. Diktadorearen bibotea. Agintea. Polizia-agentea. Komandantea. Almirantea. Autoritatea. Erregearen gortea. Gur egitea. Lotura ezin etetea. Xake-matea. Ezezko biribila entzutea. Erabat itxita dagoen atea... Hori guztia da KATEA.

Iñaki Vidal



HODEI TORRES

Eta koltxoi zaharrera hurbildu nintzen. Eta esan zenidan. Eta sinistu zintudan: artistek krisia behar duzue sormenerako.

Alain Arkotxa

Logela. Arteak zure senaren sakonean bezala, nire baitan dihardu, bart gauean zure karminezko ezpainetan zeneraman zapore gaziak, bion izerdiaz blai ziren azal labainkorren gaineko dantza erritmikoak, edo plazer marruak isilarazten zituzten xuxurla maitekorrak. Izar bakanez zulatutako mantu beltzaren azpian, egarbera genituen bihotzak eta zure irriak, bizipozak, maitasunak, soberan egiten zuten nireetan.

Gaur, gorritz tindaturiko egunsenti honetan, bi ilargi oparoz jantzitako bisaia zurbil ageri zaizu. Arma soilegia edertasuna, hiesetik ihes egiteko. Beti zenion, maitea, begiak ixtean sentipenak indar bikoiztuz azaleratzen zitzaizkizula. Hala sinetsirik, errealitateari uko egin eta amultsuki besarkatu zaitut, are eta utopia gordin honetan erraiak erabat uzkurto zaizkigun arte.

Asier Diez Iztueta



Esnatu. Gosaltzeko hutsa, bakarrik. Egun bat biharko, oraindik. Esnatu. Gosaltzeko hutsa, kafea. Hasi dut azken bidea. Sokarekin dantza. Azken tangoa, gorantza.

Sugar Perez Zallo

Lotzen gaituena, maitea argiaren pareko haizearen hitza... nor naizen esatea.

Lotzen gaituena, maitea izarren begiko lurraren bihotza... nor zaren jakitea.

Lotzen gaituena, maitea aske garela esatea.

Jose Ramon Etxebarria Agirre

Txakurño, ez dakit zutaz zer esan, arima erdi iharturik izateagatik agian.

Jon Peli Oleaga



OSKAR MARTINEZ

TXAKUR-AMETSAK

Neguko azken elur maluta lotsatiekin batera sartu nintzen etxe horretara (...) Elurrak gauza onak ekartzen omen ditu, ateko zirrikituetatik barrena (...) Besteen berotasuna besterik erregutzen ez zuen eskale setatsua nintzen. “Laztan bakar bat, bizitza osorako lagun baten truke”, zioen afixak. Ni izan nintzen hitza betetzen bakarra.

Udaberriko egunetan zehar, nire etorkizun gozoa amestu nezakeen euri-tantez zipriztinduriko kristaletan. Ez dut inoiz igarle dohainik izan. “Zaborra, zaborrontzira” esaten omen zaie umeei. Eta eredu ona eman behar. Gizarteak badauka gauza bakoitzarentzako lekua, zorionez.

Momentu hartan bukatu zen nire ametsa. Udaberriko txakur-ametsa.

Oihane Fernandez Mendia

ANE BASAGOTTI



JOSE MARI MARTINEZ "BUBU"

Umea nintzela sinestarazita nengoen, eguzkia eta ilargia bakarrik ditugun moduan, ostadarra ere bakarra genuela. Ostadarra baina, beste biak baino bereziagoa zen nire mundu txikian: hurbil-hurbilekoek soilik ikus zezaketela uste nuen. Noizbait nire ondoan agertu eta koloreak pizten bazituen, zorte handiko pertsona nintzela pentsatzen nuen. Ixil-ixilik begiratzen nion arkuari, izutu eta alde egingo zuen beldurrez. Une magikoak izaten ziren. Ostadarraren ilusio optikoa? Ilusioa, nik galdu nuena, misterioa argitu zenean. Umetako xalotasun horrekin batera galdu nuen. Baina begira oraingoan ere! Shhh!! ostadarrak ustekabeen harrapatu gaitu! Horra hor hostoa, eta ozta-ozta ostadarra, guri adarra jo nahian. Magian sinesteko motiborik ez zaigu falta!

Aiala Elorrieta

Ekainaren 28an atera armairutik eta aldarrikatu gure eskubideak! 20:00etan plazan. Pasa mezua.

Zorion Arregi

Animalien begiradek euria ziruditen nire gorputz idorrean. Uholdea eragin zidaten iraganeko egunetan, eta gaur ez dut atzokorik topatzen euren buru erailetan.

Eneko Sagardoy Mujika

INKISIZIO MODERNOA

Hausnarketa basatia, edo herdoildua. Hausnarretik bizi omen dira, ziren, ni bezala. Baina buruak moztu dizkiete berriz hausnar ez dezaten, bizitzera ere ausart ez daitezen; bide batez, guri ere abisu emanez. Mezu subliminala, hori bai, baina hausnar buruez egindako meta dugu horren lekuko. Begiak, halere, zabalik. Hausnarketa basatia, edo herdoildua. Ez, hobe: herdoiltzera behartua. Hausnarraren zampaketa basatia, besterik ez baita inkisidore modernoan helburua. Hori, eta gorputzen ustiaketa formala; gure gorputzarena, zurearena. Hausnarketa basatia, edo herdoildua. Nik nahiago basatia, bizi nahi badut. Zabaldu begiak.

Alaitz Andreu Eizagirre



JOSE IGNACIO "LOBO" ALTUNA



CARLOS TERREROS

Geruza, mihisea, arbela, hori omen da zerua. Ikusi badakusat, itsaso zabal urdin bat, enbata nabar trinkoa, ur-jauzien iragazkia, Ekiren habia. Ortzi bera da, ispilu aurrean.

David Cascan Porben

Begirada galduta, leihoaren bestaldean, ezin dituzu igarri nire maitasun keinuak. Nor da buruan duzun hori, nor da nire edertasun guztia lausotzen duena?

Haizea Goñi Rodriguez

PEDRO ZARRABETIA



Hamentxe nau, zentalle!
Aituizu gorantza!
Ez dozu ezetu, ba,
neure mustur baltza?

Neugez ixen zara zu
mile bider berbaz,
eta neu bere zugez
akordatuten naz!

Sarri etorten zintzen
neure aldetzera
ardautxu ekarri te,
konforme nobera!

Berbaz egoten gintzen
euskeraz polito,
lehengo kontuk esaten
naiteixen betiko.

Grabadore iminten
zendun mahaian ganen
neure berbak koixteko
esanen-esanen.

Beti esaten zeunsten
ardureaz bere:
«betitik in dozu zuk
Getxoko auskere?».

Da nik esaten notsun
bihotz-bihotzetik:
«gurosok emoneko
auskere dakit nik!».

Biok berbaz gustoso,
temak pere, naie,
bertso asuntuk zuri
zelan gusta baie!

Neguko egun beten
egin nitzen ostu,
baie zu hor ikusita
egiten naz poztu...

Joseba Santxo Uriarte

ATZARI TXIMELETA

Hartxo nintzelarik, nire ohea
egiteko, museoan margolan
baten bila aritu nintzen.
Berniza eta pintura harraskatu
nituen eta mihisez estalita, lo
hartu nuen.

Gaur, hegan egin baino lehen,
hegalak inarrosi ditut.

Atzari tximeleta.

Margarita Bravo Rodriguez



FATIMA DIEZ

*Askotan geratzen gara esku hutsik,
behar den beste ez emateagatik.*

Jon Peli Oleaga

Eskuak.
Eta eskubideak. Eskabideak. Askabideak.
Eskuak. Bide erakusleak.
Eskuz pistolari hel diezaiokezu, edo maiteari fereka egin.
Eskua itxi eta ukoa bilduko duzu: ukabila.
Eskua zabaldu eta irria bilduko duzu: eskuzabala.
Esku-hutsik ere, eskuzabala izan baitzintezke.
Eskuak.
Harria zein herria jasotzen duten eskuak.
Eskuak, gurean, argi mintzo dira:
Esku Herrian eskuaraz!

Galder Guenaga Garai

JUAN LUIS MARKAIDA



*Bueltaka da2Ikio burua;
sperantzaz btea nirea.
Rrtzkoari zkn zupada
emoterako hondarrak jngo
balu asfaltoa... Ai ene,
hartzatxo! 2har +tukotsut
kontetako ;)*

Zirats Castro

Nekatuta nago, laztana. Hankak eta betazalak zapaltzen dizkidan neke hau igaroko da, maitea, eta ez gara berriro arrotzak izango. Ez bilatu gehiago zigarroaren kean: gordeta ditugun oinazeak eta pozak neurtu ditugu; urrun da gaztaroa, lausoa da haurtzarora; eta hain dira galduak borrokak! Lurreko harean idatzia patua, hegazti kanta barik, haize gozorik ez, erle burrunbarik gabe. Burua eta bihotza ados dira, bihotza: itxaron denbora pasa arte, haizete edo noria edo moda bat pasatzen den legez. Nekea tarte laburra da, laztana, lanaren argi lizunaren eta aharrasiaren filosofiaren artekoa; jai bat da apenas, gogorik ezaren eta nazkaren eztikeriaren ostekoa.

Aritz Gonzalez Aristegi



NAIARA GOIKOETXEA

Gaur, atzo ere sentitu nuen bakardadea sentitzen dut; zuhaitzen adarrek garai honetan sentitzen duten soiltasun zein bakartasun berek inguratzen naute orain.

Arri Bardezi

AANI

I
Bakarrik sentitzen naizenean, mendietara igo eta izarrei begira geratzen naiz. Lehen hutsunea zegoen tokian, orain badago bazter bat, ur eta zuhaitz artean, non itxaropenak ez diren amets soilak.

II
Mundua hiltzorian zegoen: gudak, diruzalekeria... Jakintsuek lurrazaletik erbesteratu nahi gintuzten, zerua ahaz genezan. Baina neskato bat Kontseiluan sartu zen. Espazioko hondakin pilen artean botila bat aurkitu zuen. Barruan irudi arrotz bat; gibelean hitzak: "Ez zaudete bakarrik. Zatozte". Buruzagiek elkarri begiratu zioten. Elkarlanean aritzea erabaki zuten. Kontuak aldatu egin ziren. Nire etxea salbu zegoen.

III
Leku magiko hori jagoten dut nire bihotzean. "Aaniren hiria" deitu genion, itxaropena itzuli zigun neskatoaren izenean.

Amane arin Ariznabarreta

Ez nuke bigarrenez biziko: ordukoa, izan zen moduan, gorde nahi dut. Iragana zara: maitemintzen nauen oroitzapen bat, usainak, irudiak; zimeltzen, eder.

Zelai Agirre Muniain

Den-dena ikusi dute jada zure begiek.

Hamaika bidetako hautsa harrotu zure oinek.

Lorategi ederrenak habitatu dituzu.

Maitalerik sutsuenak seduzitu, eztitu.

Oroimenen bilduma zainduz bizi zara egun; oroimenen ukenduaz errealitate gordina igurtzi eta estaliz.

Horixe zara, bai, oroimena, oroimina... denbora agortu zaizula gordin diote lore zimelek.

Jabi Santa Cruz



PERU URRESTI



GONZALO AZUMENDI

Askatsun irrikak mozkortu nau, bihar alkoholaren ahaztura perfektuak esnatu nazan. Baina bihar.

Maddalen Markaida Santa Maria

EGUNSENTIA (Volupté)

Pertsianaren zirrikituetatik sartzen den urrezko argi izpien kulunkak esnatu zaitu. Zuloetatik ihesian dabilen udazkeneko haize suabeak ondo daki zure gorputz biluzia laztantzen eta elurrezko errezelaren sabela ernaltzen du tarteka; keinu sotila zurekin jolasteko. Barre egiten duzu. Gela arrotz honetako lanpararen malko likidoi so eginez, haragia baino ez duzu kristalean islatuta ikusten. Larru aseak arnasa hartzen du hankartea taupakada duzun bitartean. Erbestetar sentitzen zara zure gorputzean; ispiluaren bestaldean egotearen ajea. Kateatzen zaituen beso ezezagunen besarkadari lotuta gelditu nahi zenuke. Eternitate osorako. Gehiegi ez bada...

Karol Urien Salterain

Gonbita: bide luzea izan da. Beroa egin du. Zu, non ibili zara? Nirekin itzuli nahi? Pentsatu, ez erantzun oraindik.

Miren Juaristi

Margoztu nituen esperantzak eta haize ufada batek desitxuratu. Ihes egin eta ziega irekiak ezagutu.

Bidezidorretan, galduaren galduaz, lausotuz joan ziren gogoak. Paradisu ezean zergatik amestu?

Eta orain inon: noraezean. Zu barik eta nire zain.

Igor Mercado Azkuenaga



KEPA ACERO

Frackinga > lur-apurtze hidraulikoaren nondik norakoak

Lurraren zainak erauztea; lur guztien azpitik gasa ustiatzeko...

Azken urteetan Arabako barruetan gertatuko zen ustiaketak erne jarri zituen hainbat; hala, Fracking Ez Araba plataforma sortu zuten; izua zabaltzen jarraitu, eta bizkaitarrei adi egoteko txanda heldu zitzaion. Bitartean, baina, Frantzia, Bulgaria, Irlandan, besteak beste, frackinga egitea debekatu zen.



Kantabriak ere frackingaren aurka egin du

Azken hiletan gero eta entzutetsuago bihurtzen ari da gurean franking ingelesezko berba. Modu sinplean hura azaldu gura izanez gero, horrelaxe egingo genuke: lur azpian dagoen gasa lortzeko lurra apurtzean datza, hori lortzeko ura eta produktu kimikoak presio handian sartzen dituzte lurtean (putzu bakoitzean 30.000 metro kubiko ur); eta ondorioz, presioagatik harria apurtu eta gasa ustia daiteke. Hala, frackinga berba, 'apurtzea,

zulutzea' baita teknika horren funtsa. AEBn dauka jatorria hainbeste zabaldu den berba honek eta handik, gurera ere heldu da; EAeko lurraldeetan 60 urtera-

ko erkidegoaren beharrak asetzeko adina gas natural ei dago gordeta. 2006an

Eusko Jaurlaritzak 2006an egin zituen frackingari buruzko lehen bilerak

Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen SHESAk (Euskadiko Hidrokarburu Elkartek) lehen bilerak egin zituen Heyco eta Cambria enpresa estatubatuarraz; azken horien asmoa 2007an erkidegoko lurra zulatzeko hastea bazen ere, ezin izan zuten egin, beharrezko ingurumen-baimenak gainditu barik. Hala ere, atzerapenak atzerapen, gaur egun, EAEn putzuak egiteko 17 baimen onartuta daude; ostera, hasiera batean 2014an Gran Enaran (Araba) obrak egiten hasi-



Geminis proiektuak lurteko eta itsasoko 47.940 hektarea hartzen ditu

ko baziren ere, orain ingurumen ikerketak egiten ari ei dira. Guztira, EAEn 3.000 putzu inguru egitea aurreikusitako da.

Arriskuei begira

Lur-apurtze hidrauliko honek ibilbide luzea izan du AEBn; eta ibilbide hori argudiotzat hartzen du askok eta askok

frackingaren aurka azaltzeko. Antzandenez, bertan hainbat dira gertatutako kalteak, besteak beste: lur azpian harria apurtzeko erabiltzen den produktuak, ura ez ezik, produktu kimikoak ere badauzka, eta apurtze prozesuan sartzen den ur kopuru zati bat lurrazalera itzultzen da, baina bestea ez, nora joan daite-

keen jakin barik; hala nola, horrek ur kutsatuak akuifero batera joatea ekar lezake, ondoren ur hori guztia kutsatzeko. Horrez gainera, AEBn gertatu diren artean, haustura baten ondorioz gasa atera, eta gasa akuifero batera joan izana aipa dezakegu, ondorioz hori kutsatuz. Hori gutxi balitz, beste kalteen artean, honako hauek ere gertatu dira: herritarrei arnas eta azal arazoak eragitea produktu toxikoak isuri ostean, baita

2011n, euskalkostan frackinga egiteko Geminis proiektua onartu zuten

putzuak egin diren inguruan lurrikarak gertatzea ere.

Urbe Kostako lur-apurtzea

2011ko irailean Geminis deritzon fracking proiektuari baimena eman zion Espainiako Industria Ministerioak; proiektuak Sopelatik Bermeorako kostaldea hartzen du, eta Frontera Energy Corporation enpresak, 2011tik 6 urte ditu proiektua burutu, eta bertan gordeta ei dagoen gasa ustiatzeko. ◯

Aitor Urresti > Fracking Ez Bizkaia plataformako kidea

“Eusko Jaurlaritzak frackinga aurten egiteko dirurik ez duela adierazi du; ez du ziurtatu aurrerantzean egingo ez duenik”

—Gaur egun zein fasetan daude gurean fracking-planak?

—Bada une honetan onartuta daude EAEn egingo diren ia plan guztiak; 2006an Araban egingo ziren plan guztiak onartu ziren, proiektu hori Errioxa zein Burgoseko lurraldeetara ailegatzen da; hortaz proiektu horren baimena Industria Ministerioak eman du. Bestalde, Bilbotik hegoaldera beste fracking plan bat egiteko baimena ere onartuta

dago, horri Eusko Jaurlaritzak eman dio baimena. Gipuzkoari dagokionez, eman gabe daude baimenak, baina aurreikusitako da Eusko Jaurlaritzak onartuko dituela.

—Baina, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen-sailburuak oraingoz frackinga ez dela egingo adierazi du...

—Tranpa egiten ari dira adierazpen horiekin; izan ere, esaten dute “momentuz” ez dutela frackinga egingo. 2011n

hasi ziren EAeko lehen bi lekuetan frackinga egiteko obrak; Gasteiztik hegoaldera, Gasteizko Udalaren menpeko lurraldeetan. Kasu horretan, Gasteizko Udalak ez zuen baimenik emon obrak egiteko, hori dela-eta, lekuz aldatu ziren Burgoseko iparraldera lehen bi putzuak egiteko asmoagaz. Baina aldi honetan Ministeriotik ingurumen-txosten bat eskatu zieten, eta horrek dakar aurten ez egitea, Jaurlaritzak adierazi du aurten ez

dagoela aurrekonturik, baina horrek ez du inola ziurtatzen hurrengo urtean egingo ez dutenik. Eusko Jaurlaritzak bakarrik kontrolatzen du SHESAk egiten duena; momentuz Arabako Enarako baimena eta Bizkaiko Hegoaldeko baimena. Urbe Kostan dagoen proiektuaren garapena atzerriko enpresa bati dagokio; horretan Eusko Jaurlaritzak ez dauka eskumenik.

—Hortaz, inolako trabarik gabe egin ahalko lukete Sopelatik Bermeora doan fracking proiektua...

—Plan horri, esan bezala, baimena emateko eskumena Espainiako Ministerioari dagokio; eta horrek daborduko Frontera Energy Corporation enpresari baimena emon dio, enpresa horren atzetik gasa

ustiatzen duen Herbeheretako San Leon enpresa dago. Enpresa honek badauzka estatu mailan beste baimen batzuk onartuta, ez bakarrik Geminis proiektua; izan ere, beste bost baimen eskatu ditu. Urbe Kostako baimena 2011ko irailean onartu zen, eta horrelako baimenek sei urte izaten dituzte plana garatzeko; lau urte atzerketak egiteko, eta beste bi putzuak egiten hasteko. Horren aurrean, obrak galarazteko bertako udalek udalerrietan egin beharreko obrei baimenak uka diezazkiekete, eta horrek lanak atzeratuko lituzke, baina bakarrik atzeratu, urte bete gutxienez. Horrela, dabordurako, udalerririk batzuk frackingaren aurka azaldu dira, Plentziako Udala, barbarako. ◯





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Film laburren lehiaketa

Hendaia film festival-ean parte hartzeko epea zabalik ekainaren 25a arte



Info+: www.euskara.hendaia-film-festival.com / begiradak64@gmail.com

Hizkuntza minorizatu eta minoritate kultural eta sozialen gaineko zinema lehiaketa egingo da Hendaian. Film laburren lehiaketa-jaialdia da Begiradak elkarteak antolatzen duen Hendaia Film Festival. Jaialdia urriaren 17an, 18an eta 19an egingo da, baina horretan parte hartzeko lanak bildatzeko epea zabalik dago, ekainaren 25a arte.

Hendaia Film Festival-eko antolatzaileek adierazi dutenez, *“Historiak eta kultura eta hizkuntzak zizelkatu herri batean, muga inguruan oinarritzen den festibala bat. Debate horren inguruan dokumentala, fikzio, animazio filma labur aurkeztuak izango dira ere. Begiradak kurutzatu, munduaren kondakizunak eta ikus pinduak biderkatu, zubiak eta harremanak sortzea derigorrezkoa delako guretzat. Sortzaile, artista, kazetari, ikasleek elgar ezagutzeko eta eztabaidatzeko aukera izango dute giro goxo eta sortzailea eskainiko duen festibala honetan. Kulturen alde guztiak*

aztertuko ditugu ere: literatura, argazki, gure ikusle gazteenentzat toki garrantzitsu bat atxikiz”. Hala, bai irudiari bai irakaskuntzari eta elkar ezagutzeari loturiko filma laburren zinemaldia da, eta hitzaldiak eta eztabaida-mahaiaik ere eskainiko dituzte.

«Saio bi: tokiko hizkuntza eta minoritate sozio-kulturalena; eta Akitania eta Euskadiko lanena»

Festibalaren lehenengo edizio honetan, atal edo saio bi egongo dira: batetik, nazioarteko lehiaketa, “tokiko hizkuntzen eta minoritate sozialen eta kulturen inguruko 30 bat film labur” aukeratu dituzte, eta bestetik, “Akitania eskualdean edota Euskadin berriki ekoiztutako hamar bat obra” hautatuko dituzte. Bestalde, lanek baldintza bi bete beharko dituzte: asko jota 20 minutuko iraupena izatea eta 2012ko urtarrilaren 1aren ondoren eskoitzi izana. ○

Pop-rock-eko onenak

Leioako **lehiaketako finalean** nortzuk joko duten jakinarazi dute eta **hainbat sari** banatu



Erandioko Unbreath taldea Metaleko finalean lehiatuko da

Leioako XIII. Pop-Rock Lehiaketako finalean jardungo duten taldeak ezagutzera emon du Aterpe Leioa Gaztegunek. Alde batetik, Metal sailean, Erandioko Unbreath taldea eta Arrigorriagako Incursed taldea lehiatuko dira, eta irabazleak 1.600 euroko saria jasoko du; bestetik, Pop-rock sailean, Cromatica pistonona (Madril) eta Sons of meteora (Bartzelona) taldeak sailkatu dira finalerako, eta atal honetan ere saria berdina izango da.

Leioako Udaleko Kultura eta Gazteria sailek antolatzen duten lehiaketa honetara aurten 109 talde aurkeztu dira, eta

antolatzaileen esanetan aipatutako taldeak lehiatuko diren finala herriko San Juan jaietan izango da, ekainaren 21ean (22:00), lekua ez dute oraindik zehaztu.

Bestalde, finalerako sailkatu diren taldeez gainera, dagoeneko sari bi banatu dituzte: bata, Euskarazko abestirik onenari 600 euroko saria Iruñeko Brigada improductiva taldearen “Niña” abestiak jaso du; bestea, udalerriko talde onenari Leioako Udala saria (600 euro eta Gazte Sua jaialdian jotzeko aukera) Striknina taldearentzat izan da. ○

Info+: www.kulturleioa.com

diskoak

Egusenti barri baten...
Zain
Baga-Biga



Berrizko laukotearen bigarren diskoa da *Egusenti barri baten bila*. Unai Uribe, Alberto Sanchez, Asier Cosme eta Joshua Froufek osatzen duten taldearen esanetan, melodiak, gitarrak, pop-rocka eta berben aldetik landuagoa eta indartsuagoa da disko hau, eta 11 aukeren artean kanta azkar zein lasaiak daude.

Deserriko kantak
Enaut Elorrieta
Elkar



Ken Zazpi taldeko kantariaren bakarkako ibilbidea abiatu duen lehenengo lana kalean da. “Hainbat ikuspegitatik herrimenez biltzen ditu erbesterauren bakardade sentimenduak” disko honetan eta, letrei dagokienez, deserriaz zein herriminez idatzi duten hainbat idazle esanguratsuren olerkietatik edaten dute.

Etzait lurra oinetara...
m
Autoekoizpena



Manolo Aizbitarte (gitarra, ahotsa), Unai Zubeldia “Atxuiya” (baxua) eta Iñigo Zubeldiak (bateria) osatzen duten m taldeak iragan irailean ipini zuen webgunean *Etzait lurra oinetara alleatzen...!!!* hirugarren lana; eta orainsu diskoan argitaratu dute. 8 kantuk osatzen dute oro har rock musikaren kutxan sartzen den lana. Gainera, laugarrena ere laster prest izango dute.

kontzertuak > hartortxuRock

Euskal preso politikoaren eskubideen alde eta euren etxeratzea aldarrikatzen duen musika-ekimenaren, HartortxuRock-en, “udabarriko eskaintza” egun bakarrekoa izango da, ekainaren 1ean hain zuzen ere, Atarrabian (Entrecenerios ingurua). Arrastiko 18:00etatik aurrera Fermin Muguruza & Kontraktantxa, Berri Txarrak, Riot Propaganda (Los Chicos del Maiz+ Habeas Corpus), La Jodedera eta lheskide taldeen kontzertuak egongo dira; eta diskoak jartzen ibiliko da DJ Jotatxo. Txartelek, alde aurretik erosiz gero, 20 euroko prezioa dute (ohiko lekuetan salgai, baita webgunean ere), eta egunean bertan 25 euro balioko dute. Antolatzaileek iragarri dutenez kontzertu-gunera ezingo da ez kristalezko ez plastikozko botilarik sartu.

Info+: www.hartortxurock.org

oholtzara > txapelpunk

Lekeitioko taldeak taula gainera itzuliko dela iragarri du. Iñigitoren taldea barriro ere zuzenekoak eskaintzeko prest dago, horrenbestez lekeitiarren euskarazko eta gaztelerazko punkagaz gozatzeko aukera dago barriro ere. Lan barririk (momentuz) iragarri ez dutenez, *Txapelpunk* (2000, Gor), *Bla, bla, bla, bla, bla*. *Stop* (2002, Oihuka), *Tonto el ke lo lea* (2004, Oihuka), *Vaya full* (2009, Baga-Biga) eta *Krem de la krem* (2012, Autoekoizpena) diskoetako aukeraturako kantuakaz eta doinuakaz osatutako kontzertuak eskainiko dituzte Iñigitok (ahotsa), Atofrik (baxua), El Nanik (gitarra) eta Tokik (bateria).

Info+: www.myspace.com/txapelpunk

etorri
eta
ikusisi!!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kaleko bua)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Literaturiagaz hitzordua

Larrabetzuko literatur-ekimena **maiatzaren 31n, ekainaren 1ean eta 2an** izango da

Euskal literatura eta kultura-zaleak, zein irakurleak Larrabetzun dute hitzordua Literaturia ekimenagaz maiatzaren 31n, ekainaren 1ean eta 2an. Bosgarren biderrez antolatu dute Larrabetzu Literatura Eskolaren ekimenez, Gotzon Barandiaran idazlea gidari eta beste zenbait eragileren eta larrabetzuar askoren laguntza eta babesa jasotzen duen Literaturia. Hala, alde batetik, azoka egongo da, euskal argitaletxeen eskutik euskarazko literatura-lanak salgai izango dituen, eta bestetik, horrez gainera, mahainguruak, liburu-aurkezpenak, berbaldiak, poesia eta musika errezitaldiak, antzerki-emanaldiak, kontzertuak e.a. Aurtengo egitarauari erreparatuz gero: lehenengo egunean (maiatzak 31), *Publikoari gorro-*

«Egileakaz berbaldiak, liburu-aurkezpenak, errezitaldiak, antzerkia e.a.»

to antzerki-lana (19:00) eta Goienetxe Anaiak taldearen kontzertua (22:30) iragarri dituzte; zaturako irakurle-taldeak antolatuta eta idazleak bertan direla (11:00) hurrengo lanen inguruan jarduteko aukera egongo da: *Intemperies (babe bila)* (Lourdes Oñederra), *Kristalezko begi bat* (Miren Agur Meabe), *Inurrien*

liburuak



Hitzen artean...
Batzuk
EHU/UEU

Besteak beste ikasle izandako Xabier Payak aurkeztu zuen Axun Aierbe hizkuntzalari, irakasle, eta itzultzailea izandakoaren omenez idatzitako ikerketa-lan hau. Hizkuntzalari eta literatur-testuak jasotzen ditu eta egileen artean daude Fernando Garcia Murga, Nerea Madariaga.



Info+: www.literaturia.org

hiztegia (Mariasun Landa), *Txartel bat (des)herrira* (Garazi Goia), *Alkasoroko benta* (Mikel Taberna); gero liburu-aurkezpenen txanda izango da eta bazkal ostean *Hormako paper horia* irakurraldiaz gozatzeko aukera egongo da (17:00), ondoren, Oier Guillanek *Elkartasun basatia* errezitaldia eskainiko du (18:30), eta eguna amaitzeko *Ez haut abandonatuko* (Bide Ertzean eta Jon Benito) musika-poesia emanaldia eta Anari; domekan Egungo itzulpengintzaren erronkak berbaldia (11:00), Baxuko-ren errezitaldia (17:00) eta Josu Bergara eta Pau Alabajos bakarlarrien zuzenekoak (18:00) egongo dira. ○



Elkartasun basatia
Oier Guillan
Susa

Oier Guillan donostiarraren lan barria "poesia da, baina teatroak bustita dator (...) pieza asko interpretatuak izateko sorturik daude". Norbanakoaren eta taldearen arteko harremanaren gaineko poemak osatzen dute; horien errezitaldia eskainiko du idazleak ekainaren 1ean Larrabetzun.

[kirola]

Kosta Trail ekainaren 9an

Lasterketan **400 pertsonak** parte hartuko du eta mendi-martxa ere egingo da



Info+: www.kostatrail.com

Parte-hartzaileen gehienezko kopurua bete du: 400 korrikalarik parte hartuko du Kosta Trail kostaldeko lasterketaren zortzigarren edizioan, ekainaren 9an: benetan ikusgarria izango da proba! Aldiz, mendi-ibilaldian parte hartzeko aukera badago oraindino. Ibilbide bi izango ditu: bata 20 kilometrokoa eta bestea 12koa.

Hiru ibilbideak urtengo dira Sopelako udaletxeko plazatik: lasterketa 09:00etan hasiko da, mendi-ibilaldi luzea 09:15ean eta laburra 09:30ean.

Aurten ibilaldia moldatu dute eta ez du joko zuzenean kostaldera, Munarrikolanda mendira (257 m) baizik: bertara igotzen hasiko dira Iturriaga bidetik. Gailurrera iritsi barik, Urko menditik Berangorantz jaitsiko dira eta handik Azkorri hondartzara egingo dute; jarraian Plentziaraino iristen den kostaldeko bidari ekingo diote. Bidean jan-edateko gunea egongo da, Barinatxe hondartzan (10. kilometroan, gutxi gorabehera).

Ibilbide aldatetari esker, partaideek

trikuharrien ibilbidean ezkatututa dauden txokoz eta paisaiez gozatzeko aukera izango dute, GR-280 bidearen alboan joango dira-eta. Zonalde hori zeharkatzean, gainera, iratzez eta eukalipto betetako basoak topatuko dituzte eta Kantauri mendikatean dauden pinu kantauriarren orban bakarrenetako bat ezagutuko dute.

«Aurten mendi-ibilbidea aldatu dute eta GR-280 bide albotik igaroko da»

Gogoratzea Kosta Trail-en izen-emotegaz bildutako dirua tokiko ongintzazko ekintza batera bideratu ohi dutela antolatzaileek, aurten Eugenia Epalza Esklerosi Anitzkoitza Fundazioa.

Ibilaldian parte hartu gura baduzu hainbat bide daukazu izena emoteko: Forum Sport dendetan ekainaren 5era arte, Arteako dendan 18:00etatik 20:00etara eta lasterketaren webgunean ekainaren 7ra arte: www.kostatrail.com. Parte-hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu behar du. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
irati@algorta.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Joana Etxano Gandariasbeitia > Mugarik Gabeko taldeko kidea

“Emakumeen Eskubideen Auzitegiagaz urraketak ikusarazi gura ditugu”

Emakumeen Eskubideen Auzitegia egingo dute Bilbon, ekainaren 7an eta 8an. Hogei eragile inguruk parte hartuko du ekimen horretan, besteren artean Mugarik Gabe-k. Bertako Hezkuntza taldeko kide da Joana Etxano Gandariasbeitia.

—Zertan datza auzitegia eta zergatik antolatu duzue?

—Herrialde askotan egin dira, bakoitzak bere eran. Helburu orokorra da ikusarazi ez diren emakumeen eskubideen urraketak ikusaraztea, eta erreparazio parte bat ere badauka. Espazio sinbolikoak dira: ez dute ordezkatzeko ohiko Justizia, baina esaten dute norantz jo beharko lukeen; eragin politikorako tresna dira.

—Zelako urraketek ari gara?

—Auzitegi bakoitzak gai jakin baten inguruan egiten du. Guk hiru alor aukeratu ditugu, asmoa baita eskubideen urraketa orokorra ikusaraztea: abortatzeko eskubidea, bizitza maila duina izateko eskubidea eta indarkeriatik at bizitzeko eskubidea. Helburua da ikusaraztea urraketa horiek gertatzen direla emakume izateagatik, eta mundu osoan. Oinarria dira patriarkatua eta indarkeria matxista. Beraz, ikuskeraz orokorra emon gura dugu auzitegiari, ez delako indarkeria fisiko bakarrik emakumeek pairatzen dutena; aitzitik, indarkeria mota asko dago.

—Zeintzuk dira auzitegi honen eta alor horien helburu zehatzak?

—Zehazki, hiru helburu nagusi dauzka ekimenak. Lehena, ikusaraztea emakumeen eskubideak urratzen direla, eta hori dela indarkeria matxistaren eta desberdintasunen ondorio; hau da, ez dela kasualitatea biztanleriaren erdiari gertatzen



Info+: www.tribunalderechosmujeres2013.blogspot.com.es

zaiguna. Bigarrena, sistema politiko eta judicialak daukala legeen ikuskera endozentikoa; hori salatu gura dugu eta legeetan metodologia feminista txertatzea gura genuke. Eta hirugarrena, zelan laguntzen dion honek emakumeen jabetzua kolektiboari, hau ekintza politikoa da-eta: eragiteko tresna bat.

“Auzitegi hauek ez dute ordezkatzeko ohiko Justizia, baina esaten dute norantz jo beharko lukeen; eragin politikorako tresna dira”

—Zelakoa izango da eta non?

—Auzitegia Bizkaiko Abokatuen bazkunako areto nagusian izango da. Epaitegia irudikatuko da: fiskala, epaimahaia eta behatzaileak egongo dira, eta azken horien egitekoa izango da baliogarriztat emotea epaitegi sinboliko hau. Hainbat emakumek lekukotza emongo dute eta

gai bakoitzaren sarrera egingo du emakume aditu batek. Hiru arloak aztertu ostean, epaimahaia ebazpena emongo du: bai zer ikusi duten, bai zer gomendio egiten duten; hau zuzenduta baitago erakundeei zein jendarteari. Beste herrialdetan egindako auzitegietan, horietan ikusitako kasu batzuk ohiko epaitegietan

epaitu dituzte gerora.

—‘Viena+20’ izendatu duzue ekimen edo Auzitegia, zergatik?

—Duela 20 urte egin zen Vienako auzitegia, gero Vienako Mundu Konferentzian eragina izan zuen: bertan esan zuten lehenengoz emakumeen eskubideak ere giza eskubideak direla. ○

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoak. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Jentilak. Ilustrazioa: Daniel Castello

Jentilen olerkiak

Mendian nenbilan, artaldearekin.
Egun lasaia izaten ari zen,
beste batzuk bezalaxe.

Bat-batean han zeuden,
Aralarreko zelaietan
erraldoiak agertu ziren.

Haserre zeuden, benetan.

Ezkutatu nintzen eta nire lekutik
haien hitzak entzun nituen.

“Zergatik egiten dute gure kontra?
Beraientzako aranak, guretzako mendiak,
kobazuloak, urrun dauden lekuak...
Eta ez dira konformatzen?
Zergatik aldatu gure sinesmenak?”

Harri izugarriak botatzen zituzten
araneko baselizekin bukatzeko asmoz.

“Sortu da jende txiki perrua,
akabatu da jende humanua”.

[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane Tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
JATETXEA

C/ Alangobarri n°3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZABAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

Boletusen gozamena bakailaoaren eta onddoen fintasuna

GURE ETXEA
taberna



Begirune handia diote *Boletus edulis* onddoari, daukan zaporea zein ehundura gozoagatik

Onddo maitatuenean artean *Boletus edulis* mota dago; eta hori, hain zuzen da Gure Etxea Romoko tabernatik dakarkizugun pintxoaren osagai erakargarriena. Pintxo egiten hasteko, tipula gorria txikitu, eta sutan jarriko dugu gorritu arte, ondoren, boletusak txikitu, eta zartaginean sartuko ditugu. Onddo eta tipulari Pedro Ximenez ardoa bota, eta osagaiak batera urritzen utziko dugu. Bost-hamar minutu inguruan ardoa urritu, eta sutatik kenduko dugu. Hori egin bitartean, beste alde batetik, bakailao xafla bat pil-pil erara egin beharko dugu; horretarako, kazolan olio, berakatza eta pipermin bat sutan jarri dugu ondoren gezatutako bakailao xafla kazolan sartu-

ko dugu, aurretik aipatutako osagaiak. Hala, 10-15 minutuan ondo eginda egongo da arraina.

Beraz, egin eta gero, bakailao xafla txikitu, desegingo dugu, ondoren gainetako osagaiak nahasteko, hau da, boletus eta tipulagaz nahasteko. Dana ondo nahastuta daukagula, ogi xafla labean txigortuko dugu, eta horren gainean boletusak, tipula, bakailao eta Pedro Ximenezegaz egindako nahasketa ederra jarriko dugu. Gainera perrexila botatzeagaz nahiko izango dugu jaten hasteko. On egin! o

Osagaiak: Boletus Edulis, olio, tipula gorria, bakailaoa, berakatza, pipermina, Pedro Ximenez ardoa



Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



ITXASGANE

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñe z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



GOIZEAN


"Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Lixarriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO



KONTXI ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

DIDAK hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Urte osoko ahaleginak mereziko du, egon ziu! Azken txanpan sartu zara eta aldapa gora bukatzeaz da! Askok ikasi eta dana gainditu, udan primeran pasako duzue-eta! Animo!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Hasi da jaietako denboraldia, zein ondo! Baina hau buruhaustea! Nora joango zara aste akabu honetan? Eta hurrengoan? Bardin dio nora, garrantzitsuen konpainia da!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Maiatza amaitu arte ez duzue kenduko jaka potoloa, beti bardin! Maiatzaren 40ko esatera beste hizkuntza batekoa da, beraz segi lasai sandaliak luzitzera!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Lan barria, exek barria, herri barria... Aldaketa mordoa horren tarte txikian, ezta? Hartu arnas eta mantendu oinak lurlean, zorabiatuko zara bestela!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Ez zara zu izaki udatiarra, primeran egoten zara neguan, curia eta hotzagaz. Bada, sentitzen dut, baina kristoren eguraldi ederra dator hil hauearako. Aldatu txipa!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zorionak, eguzki! Urtero legez, zuk ekarriko diguzu argia eta zoriona. Bildu lagunak eta gonbidatu askaltzera, urtebetetzea ganoraz ospatu behar da-eta! Ehunka tiraldi belarritik!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Loteriarik ez zaizu tokatu ikasturte osoan, baina egon lasai. Herriko jaiak hasi dira eta zozketa mordoa salduko dizute. Nork daki, agian txirindula bat tokatuko zaizu, txuletaren bat bestela...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Urtero bardin, baina aste bitan ezin egin bikiniaren operazioa. Nori axola! Hemen baditugu hondartza nudista ederrak: kendu arropa eta zoaz uretara! Ikusiko duzue, a zer plazera!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Kakati hutsa zara eta soroslerik gabe ez zara uretan sartuko. Gitxi falta zaizu, baina urte erdia galdu duzue: negua emon duzue surf ohola aldean, Benito Lertxundiren moduan, isasoari begira...

META



(Irailak 17 urriak 16)
Ikasgaien erdiak ez dituzue gainditu eta ikasten segi behar uztailera arte: ederra egin duzue! Lagun danak hondartzara joaten hasi dira, uda goztiara gozatzen. Hurrengorako badakizu...

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Ederto pasa zenuen Ibilaldian, ezta? Aldapan gora, aldapan behera... Euskara ere horrela dabil, gora eta behera. Zure keinuak lagunduko dio tontorrera iristen, aupa!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Burutik kea ateratzen zaizu, ez emon hainbeste buelta. Hustu barruak eta izan bedi izan beharrekoa, eta gura badu joan dadila pikutara! Uda bertan da eta askatzeko eta gozatzeko unea iritsi zaizu.



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan





Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik



7 Aldeak

Aurki egizuz irudi bion arteko zazpi ezberdintasunak.



> Soluzioa

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Nortzuk dira Jentilkobako oraingo protagonistak?

- Basajaunak
- Jentilak
- Tartaloak

La Gusana liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta
Tf. 94 491 14 12


SARIA
lagusana

> Aurrekoaren erantzuna: Txinga-erutean

> Irabazlea: **Peio Lasa***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA

Oinutsik

konsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana
Tf. 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net



> Aurrekoaren erantzuna: Fredi Paiak

> Irabazlea: **Amaia Uriarte***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



GOTZON GARAMENDIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

SAN NIKOLAS IKASTOLAKOAK AGATE DEUNAN, 1965-66

Aurten ospatu ditu Algortako San Nikolas ikastolak urrezko ezteiak (1963-2013). Seme-alabei heziketa euskalduna eta euskaraz emoteko asmoz (sasoi hartan ez zen egitasmo makala!), Getxon 1963an San Nikolas ikastolaren hazia erein zuten bederatzi familiak: Aguirre-Zarate, Aristegi-Anduiza, Azkagorta-Aretxabala, Garamendi-Garate, Garamendi-Urribe, Garate-Urretxua, Iturriaga-Zabala, Rekalde-Uriarte eta Ceberio-Garate. Irudi honetan, ikastolako lehenengo eta bigarren ikasturteetako ikasleak daude, Agate Deuna egunean abesteko eta makilak prest. 4-6 urte bitarteko neska-mutilon irakasle Itziar Berrojalbiz izan zen, eta hastapenetan, oro har, eskolak partaide ziren gurasoen etxeetan (hilerio aldatuz, antzeman ez zituzten) eskaintzen ziren, besteak beste: Gotzon Garamendi, Azkagorta, Lores, Urretxua, Enrique Montano, Aldama-Ormaza eta abarren etxeetan. ○

Zutunik: Isatxu Azkagorta, Itziar Agirre, Jaione Agirre, Ane miren Iturriaga, Nerea Etxebarria, Koldo Losada, Garbiñe Losada, Mikel Zeberio, Koldo Garamendi eta Joselu Garate.

Makurtuta: Iñaki Gaztelurrutia, Imanol Gaztelurrutia, Jon Etxeandia, Asier Etxebarria, Ibon Etxebarria, Enrique Montano, Josu Ander Laka, Erramon Aurre eta Gotzon Lores.

MIRIAM CABEZA SAINZ > aktorea

“Ez zait inporta kameraren atzean lan egitea”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **EITB**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Saiatua eta ameslaria.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Agian antzina girotutako baten batean, bestela, bakarra aukeratu beharko banu: *Olvidate de mi*.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Bikoizketa aktore edo ikus-entzunezkoen ia edozein arlotan: errealizadore ere banaiz eta ez zait inporta kameraren atzean lan egitea.

Eta zertan ez zenuke jardun gura?

Beti errutina bera jarraitu beharreko jarduera batean.

Kolore horia, bai ala ez?

Ez naiz batere superstiziosoa baina, aukeratzekotan, nahiago ez janztea kolore hori estreinaldietan.

Aitor dezakezun bizio bat.

Erretzea: sekuentzien artean asko erretzen dugu, itxaronaldiak gure lanaren parte dira-eta.

Zerk emoten dizu beldurra?

Gure lanaren ziurgabetasunak. Ikara ematen dit!

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?

Gogoko dudun telesail bat ikusten egotea 24 orduz.

Estualdirik handiena?

Lanean sketch bat grabatzen geundela dantzatu behar genuen; halako batean, makurtu eta gona apurru zitzaidan: hura lotsa!

Zein da zure ametsetako bat?

Bidaiatzea eskatzen didan proiekturen bat egitea.

Zer galderari ez zenioke inoiz erantzungo?

Ez naiz polemiketan sartzen: ez hemengo politika kontuetan, ez ikus-entzunezkoen lehiari buruzkoetan. ○

LABURREAN— Orain dela aste gitxi estreinatu du *Irrikitown* saioa ETB1 telebista katean Miriam Cabeza Sainz aktoreak (Donostia, 1984), baita ETB2ko *Ya queda menos* ere. Baina ez da barria telebistan: *Vaya semanita* saioko azken denboraldi bitan aritu da eta, besteak beste, *Mi querido Kliowsky* telesailean parte hartu du. Halere, ez da mugatzen aktore lanetara eta kameraren bestaldean ibiltzeko gai da, izan ere, errealizadorea da. Gainera, osagarri-marka bat ere badauka eta zeregin horretan dihardu telebistaren munduan ez dabilenean. Langilea gure aktorea!

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urte osoan argazki zahar eta barriak
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
Urtean 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi gertu@tokikom.com helbidera eta hitz egingo dugu!

TOKIKOM

TOKIKO
KOMUNIKABIDEEN
BATERAGUNEA

Hirinet.net	Aikor	Barren	28 kanala
Berton	Aikor.com	Elgoibarren.net	Karkara
Bilbo Hiria irratia	Anboto	Baleike	Karkara.com
Prest!	Anboto.org	Baleike.com	Antxeta irratia
UK	Goiena Papera	Erlo telebista	Hernaniko Kronika
Ukberri.net	Goiena.net	Uztarria	Kronika.net
	Goiena telebista	Uztarria.com	Noaua!
	Pil-pilean	Goierri telebista	Noaua.com
	Plaentxia.com	Galtzaundi	Txintzarri
		Galtzaundi.com	
			Txintzarri.info
			Aiurri
			Aiurri.com
			Ttipi-ttapa
			Ttipi.net
			Xaloea telebista
			Mailope
			Xorroxin irratia
			Guaixe
			Guaixe.net
			Euskal Herria irratia

Getxo ezagutzeko ibilbideak

GETXOKO ONDARE ETNOGRAFIKOA ETA TOPONIMIA EZAGUTU NAHI DUZU?

Etorri gurekin larubat goizetan!

Hurrengo Ibilbideak:

Apirilaren 27a: KOSTALDEA

Maiatzaren 18a: BETIKO GETXO (bizikletaz)

Ekainaren 1a: HEZEGUNEAK

Ekainaren 15a: GETXO BARRIA

**IZENA EMATEKO EDO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**
688 635 350 bulego orduetan
getxo.toponimia@gmail.com
<http://getxokotoponimia.blogariak.net>



Getxo
bizi ezazu



MAIATZA eta EKAINA